

Medikuaren zain

Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko 9.305 biztanleendako hiru mediku besterik ez / 9



Lanbide Heziketa Institututik Mendi eta Eskalada ikasketak kendu nahi ditu gobernua / 15

Joan den urtean 305 pertsona gehiagok eman zuten izena enplegu bulegoan / 11

Lizarragako Kontzejuak alokatzeko bi etxebizitza prestatu nahi ditu / 14

Bidean egindako lanak ez hondatzeko, Beheko basoko bidea itxi du Bakaikuk / 6

Arbizuko komunitatearen baratzetan izena emateko epea zabalik dago / 8

Ruben Mendieta eta Iraitz Senar, Nafarroako Pista Estaliko txapeldunordeak / 16

Dani Saldise irurtzundarra 1. Mailako Areto Futbol Ligako pitxitxia da / 17



Pello Reparaz arbizuarrak bere musika ibilbideaz eta Zetak proiektu berriaz hitz egin du / 23



Maialen Galarzak herriko kintoei buruzko ikerketa egin du.

Igarotze erritu bat

Maialen Galarza urdiaindarrak herriko kintoei buruzko ikerketa egin zuen ikasketen Gradu Amaierako Lanerako. Ospakizuna igarotze erritu bezala aztertu zuen, eta nesken eta mutilen arteko desberdintasunak azalerratu zituen

Erkuden Ruiz Barroso URDIAIN

Antropologia ikasketak egiten ari zela, bigarren edo hirugarren mailan, irakasle batek Santa Agedaren inguruan behaketa lan bat egin behar zutela esan zien. Maialen Galarza urdiaindarrak herrian ospakizuna bi modutara ospatzen zela esan zion. "Berak zerbait bazekien, baina esan zidan kintoei buruz

oso ikerketa gutxi zeudela. Ez da azaltzen zer ohitura duten, nola ospatzen duten egun osoa, jantziak eta abar". Irakasleak kintoen inguruko behaketa lana egiteko esan zion. Urdiaingo kintoen ospakizunak Santa Agedarekin bat egiten du, eta hiru egunez ospatzen dira: ostirala, larunbata eta igandea. Hortaz, Galarzak irakasleari klasera faltatu behar-

ko zela azaldu zion, "eta irakasleak justifikatuko zidala esan zidan. Ikerketa egiteko". Hortaz, kintoak oinarri hartuta behaketa lana egin zuen. Ondoren, eta gaiaren inguruan lan gutxi zeudela kontuan hartuta, ikerketa-ekin jarraitzea erabaki zuen, eta Urdiaingo kintoak izan zen bere ikasketen Gradu Amaierako Lanaren gaia.

Lana egiteko hiru egunez Urdiaingo kintoak behatzen arituz zen Galarza. "Erraza izan zen ezagutzen nituelako". Ospakizuna "igarotze erritu moduan" ikertu zuen, eta hasiera batean ez zuen generoaren gaia sartu nahi, ikasketetan asko landu zuten arren, ez zuelako bere burua "oso gai" ikusten. Baina ikerketa egiten ari zen bitartean, konturatu zen "ezinezkoa" zela gaia ez lantzea. Igarotze errituaren faktoreak kontuan hartuta, "emakumearen desberdinkeriak faktore horiek guztiak zeharkatzen zituen". Hau da, faktore guztietan emakumea kanpo gelditzen zen. Beraz, GrA-Lean kintoen ospakizunak oinarri hartuta generoen arteko desberdintasuna faktore bat izan zen. Ondoren, Nafarroako Dantzarien Biltzarrak antolatuta Emakumeen garrantzia Urdiaingo errituetan hitzaldia eman zuen, eta bertan kintoen ospakizunak eta San Juango Kantantzen errituak aztertu eta aldera-

tu zituen. "Kasu honetan generoa oinarri izan zen".

Igarotze erritua

"Gazteak kintoetan sartzen direnean haurrak dira, gero kintoak daude eta ateratzerakoan helduen kolektiboan sartzen dira". Galarzak ospakizuna igarotze erritu moduan ikertu du. Urdiainen hiru urtez ospatzen dira kintoak, eta urte horiek prozesu "liminal" bat dira, trantsizio momentu bat. "Herriak ikusten du momentu hori pasa beharreko zerbait dela". Behin kintoak pasata gainontzeko helduekin ospatzen da Santa Ageda. "Zure kintoekin bazkaltzera joaten zara eta besteekin ospatzen duzu". Kintoak diren azkenengo egunetan edo bukatu direnean "tabernara etortzen zara, pote bat hartzen duzu, besteekin hitz egiten duzu... pertsona horrekin beste harreman bat sortzen da".

Herriak kinto guztiak berdin ikusten ditu: "Denak kintoak dira". Jantzkerarekin ere uniformetasun modu bat dago, "hemen tradizioa baserritarrez jantzita joatea da". Kaletik ikusten dituztenean, beraz, identifikagarriak dira. "Ez zara pertsona jakin batean finkatzen, agian ezagunen bat baduzu bai, baina bestela hor daude kintoak esaten duzu". Hiru urtez ospatzen direnez, "kategorizazio" bat ematen da ere: kinto gazte, kintoak eta kinto zaharrak; hamazazpi, hemezortzi eta hemezortzi urteko kintoak, hurrenez hurren.

Iniziazio frogak

Errituaren barruan hainbat faktore aztertu ditu Galarzak. Hiru urteko prozesu bat denez, kinto gazteek "iniziazio frogak" pasatu behar dituztela ondorioztatzen duen urdiaindarrak. "Ez da zerbait ofiziala. Ez da inon esaten pasatu behar dituztela kinto bihurtzeko, baina modu inkontzientean egiten dira". Froga hauek "alkoholarekin eta arriskuarekin" zerikusia dute, eta kintoek eta kinto zaharrek garatzen dituzte eta kinto gazteek pasatzen dituzte. "Kinto gazteak pasatzen joan



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





Urdiaingo kintoek dantzaten dute zortzikoa, kinto gazteak laguntzaile direla. ARTXIBOA

behar dira. Kinto onak izan nahi badute, froga pasa beharko dute. Esaterako etxajua hartu eta arrisku asko ekartzen duen erokeria bat egingo du. Alkoholarekin lotzen baduzu eta ahalik eta alkohol gehiago kontsumitzen baduzu eta arrisku gehien duen zerbait egiten baduzu, kinto hobe izango zara". Kinto gazteen urteak "nolabait" kinto garai guztia markatzen du. "Zure ekarpenak kontuan hartuko dira. Urteak pasa ahala, oraindik ere, kintotan egin zituzten gauzak gogoratuko dituzte lagunek".

Iniziazio froga hauek aztertuz nabaritu zuen antropologoak mutilen eta nesken arteko lehenengo desberdintasuna: Froga horiek arriskuarekin zerikusia dute, eta, beraz, maskulinitatea eta birilitatea erakustearekin elkartzen direla azaldu du. "Emakumeak kanpo gelditzen dira, eta zerbaitetan parte hartzen badute edo zerbait egiten badute, ez da hain arriskutsua izango; ez da ondoren gogoratuko". Emakumeek ez dute festa "kontuan hartzen". "Kinto gaztea nintzeanean, azken egunean, beste neska batekin nengoen eta beste guztiak kinto mutil zaharrak ziren. Azkenak gelditu ginen eta oso harro sentitzen ginen. Ardoaren bota hartu genuen eta lokala margotu genuen". Handik egun batzuetara margotu behar izan zuten. Ez du inork oroitzen, "eta mutil batek egingo balu, gogoratuko zen". Momentu honetan "tontakeri bat" egin zutela uste du, baina momentuan "harrokeri puntu hori" izan zuen: "kintoa zara". "Beraiek badakite emakumea kanpo gelditzen dela.

Gauza horiek erabiltzen dituzte erakusteko ez dela gure lekua. Etxajua eta petardoak botatzen hasten badira badakite ez zaikigula, orokorrean, gustatzen. Eta orduan zuri botatzen dizkizute, hanketara".

Herriaren onarpena

Kintoetan ematen den beste faktore bat herriaren onarpena da. "Herriari gustatzen zaio jakitea kintoak non dauden, hiru egunez musika topera egoten da eta parranda egiten da, eta herriak kintoak direla ikusten du, pasa beharreko etapa bat dela". Etxean ere "normalean" onartzen diren egoerak eta jarrerak onartzen direla azaldu du Galarzak: "Etxera goizeko zortzietan iritsi, lo gutxi egin, eta hamabietarako berriz kalera atera". Egin beharrekoa bezala ulertzen da. "Ez zara haurra, ez heldua. Kintoa zara". Behin garai hori pasata "etapa horretan egiten zenuena" ezin dela berriz egin aipatu du urdiaindarrak.

Euskal Herrian kuadrillen zentzua oso handia da. Kuadrilla bat betidanik eta betirako izango da, eta lagun horiek "zure benetako lagunak" izango dira. "Harremanak oso mugatuak daude". Baina kintoetan laguntasun berri bat sortzen dela ondorioztatu zuen Galarzak. "Kintoen arteko harremana sortzen

"KINTOTAN SARTZEN DIRENEAN HAURRAK DIRA, ETA ATERATZERAKOAN HELDUAK"



Urdiaingo kintoak 2016. UTZITAKOIA

da. Egiten duzun laguntasun hori betirako izango da: beti izango da kintoena". Kintoekin egiten den harremana oso estua izango dela azaldu du antropologoak: "Kinto garaian asko elkarbizitzen duzu. Egun osoa pasatzen duzu zure kintoekin, eta miseriak ere pasatzen dituzu: boletoak saldu, dirua eskatu, euria...". Baina egin beharrekoa da. "Pertsona horiekin zaude".

Horren ondorioz "zeharkako laguntasuna" deitutako harremana sortzen da: "Agian kinto batek ez ditu beste kuadrillako batekin kintoak egin, baina bai kuadrilla horretako beste pertsona batekin. Ondorioz, bi pertsona horiek ere harremana izango dute".

Faktore honetan ere emakumeak kanpo gelditzen dira. "Josepa Cucó i Ginerrek azaldu zuen laguntasuna maskulinoa zela. Giro sozialean ematen den zerbait da, eta emakumea giro horretatik kanpo egon da". Ondorioz,

laguntasuna maskulinitatearekin eta lehialtasunarekin lotzen da. "Laguntasan iniziazio frogekin zerikusi handia dauka: nik hau egin nuen, lehiala naizelako. Biok bizi izan dugu. Horrekin erakusten dizut zure laguna naizela". Gizonen eta emakumeen arteko laguntasun hori ez da "hain indartsua". "Sare hauek ez dira berdin lotzen".

Soldaduska

Kintoen festaren jatorriaz ikeritzeko Galarzak Julian Etxeberria urdiaindarrarekin hitz egin zuen. "Kintoak soldaduskarekin lotu nituen. Desberdin ospatzen ziren". Etxeberriak azaldu zion garai bateko soldaduska, Santa Ageda

"KATEGORIZAZIO" BAT EMATEN DA: KINTO GAZTE, KINTOAK ETA KINTO ZAHARRAK

eta kintoak. "Talla egunean Iruñera joaten ziren neurriak hartzera, eta orduan bueltatzerakoan bazkari edo afari bat egiten zuten. Betiere emakumerik gabe". Gero, Santa Ageda ospatzen zuten. "Herriko ezkongabeek egiten zuten, eta kristoren festa zen. Oso garrantzitsua". Ezkondu ondoren ospatzeari uzten zioten, eta lanagatik beste herrietara joaten hasi zirenean festa hori galduz joan zen. "Gero intsumisioaren garaia iritsi zen. Ez zuten soldaduska egiten, eta orduan kintoak ospatuko zituzten edo ez?".

Kintoak gaur egun ezagutzen diren bezala ospatzen hasi ziren. "Hiru egunetan ospatzen ziren ere". Larunbatean bazkaltzera joaten ziren, "eta orduan erabakitzuten zuten emakumeak kafera gonbidatu edo ez. Emakumeek itxoin behar zuten". Egunean bertan erabakitzen zuten, eta kinto guztien kontsentzua behar zuten. "Bestela, ez zituzten gonbidatzen".
HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

Zortzikoa

"Banderari zin berri" moduan izendatu du Galarzak zortzikoa. "Soldaduskan banderaren zin egiten dutenean benetan soldadu bihurtzen dira". Zortzikoarekin antzekotasunak ikusten ditu: "Zortzikoa da kintoa benetan kinto bihurtzen den monumentua. Herriari erakusten dio benetan kintoa dela, duina dela kinto izateko". Herriari eskerrak emateko modu bat da ere zortzikoa.

Zortzikoa oso une garrantzitsua da. Kintoek, hemezortzi urte betetzen dutenek, dantzatzeko eta kinto gazteak laguntzaileak dira. Jende kopuruaren arabera zaharrek ere laguntzen dute, baina normalean haien egitekoa bete dute. "Momentu horretan herriak ikusten du nor den kinto, eta rolen edo mailen identifikazioa suertatzen da". Jendeak identifikatzen ditu kintoak, gazteak eta zaharrak.

Gaur egun neskek dantzatzeko dute. Baina nahiko berria da. Sarabe Arakamak dantzatu zuen lehenengo aldiz 2016an, eta lehenengo neska eta bere urtean bakarra izan zen. "Orain arte identifikazio hori emakumeetan ezin zen eman". Emakumeak plazara ateratzen ziren, "jarri hemen" esaten zieten eta gero herria ateratzen zen. Ardo banaketarekin ere desberdintasunak nabariak direla azaldu du Galarzak: "Katalua gizonak hartzen du, emakumeak pasatzen dio, edaten du eta gizonari itzultzen dio".

Arazoak

"Bere momentuan arazo asko egon ziren emakumeak dantzatzekoaren harira". Galarzak gogoratzen duenez, bere garaian kinto zahar batek dantzatzea proposatu zien. "Bere garaian neska batek dantzatu nahi izan zuen, eta ez zioten utzi. Azkenean, ez zuen dantzatu". Neskak haserretu ziren eta horregatik kinto horrek galdetu zien. "Guk ezetz esan genuen. Bere garaian ajearekin dantzatu behar genuela eta lehenengoak izango ginela pentsatzen genuen. Orain beste modu batera ikusten dut". Baina denborarekin ikusita, "beti hor" izango dutela aitortu du. Arakamaren kintadako emakume bati elkarrizketa egin zion, eta eskaini zioten arren hark ere ezetz esan zuen: "Beldurra, jendearen zeresanak, lehen neska izatea... sentimendu asko egon ziren". Barruan bazuela aitortu zion ere.

Lehenengo emakumeak dantzatu zuen arren "egitura" ez zela



Maialen Galarzak Urdiaingo kintoak eta San Juango Kantaita aztertu ditu. ARTXIBOA

aldatu aipatu du Galarzak. "Oso berandu gertatu zen, eta ikusi nuenean asko poztu nintzen. Baina gero pentsatuta ez zuen zentzurik". Laguntzaile guztiak gizonak ziren, antolaketa maskulinoa izaten jarraitzen zuten. "Zein puntutaraino eman zen aldaketa?". Gaur egun nahi duenak dantzatzeko du, eta egitura mistoa da. "Hitzaldia prestatzen nengoenean pentsatu nuen: nork du legitimitatea esaten dantzatu ahal dudan edo ez? Sarabe lehenengoak izan zen utzi ziotelako". Onarpen bat jaso behar izan zuen. Norbaitek, gizonak, ikusi zuten logikoa zela emakumeak dantzatzea. "Desberdinkeria sozialaren aurrean zapalduak beti aurrerapausoak ematen ditu pribilegiatuak ikusten duenean aurrerapauso horrek logika duela". Emakumeek ere ez dute erabaki; baimena eman diete. "Hori ikusi nuen". Zortzikoan hastapenak eman diren arren, asteburuan gertatzen dena "berdin" jarraitzen duela esan du Galarzak.

Emakumeen papera

"Nik esango nuke ez duela papeirik". Zaintza lanarekin lotu ditu

"EMAKUMEAK KANPO GELDITZEN DIRA; EGITEN DUTENA EZ DA GOGORATZEN"

bai kintoak bai Santa Joan Kantaita. "Emakumea historikoki arriskutik aldentu da, orduan, kintoetan hartzen duen rola bigarren plano batean zaindaria da. Zaintzen ematen ditu egunak. Hau ez egin, hau arriskutsua da...". Besteen ongizatea begiratzen dute. "Neskek mozkortzen dira, baina besteak mozkortzen direnean ere ezinean daudenean, mutila aterako da esango dio oso ongi eta animo eta parrandara itzuliko da. Neska berarekin geldituko da, ura eskainiko dio, etxera lagunduko du...".

Erritu gutxi daude emakumeak protagonista dituenak. Haietako bat San Joan Kantaita da. "Berezia da protagonismoa izatea, eta aztertu nahi izan nuen zergatik duen emakumeak protagonismoa erritu horretan". Kantaita eskaera bat da; uzta ona izateko eskaera. "Urte osoan elikadura izatea eskatzen da". Emakumeek erritu honen bidez herri osoaren "ongi-zatea" bilatzen dute.

Kintoetan gazteen identifikazioa egiten da, aldiz, Kantaita erritu "izkutua" da. "Emakumeek ez zaie aurpegia ikusten, jantziekin ezkondua edo ezkongabea den kategorizatzen zaie...". Emakumeek ez dute protagonismoa emakume bezala.

Protagonismoa

Herriko bi erritu oso garrantzitsuak dira kintoak eta Kantaita.

"Herriaren nortasunean zeresan handia dute". Galarzak haien inguruan hausnartzea nahi du. "Kantaita egiten dugunean, ez dugu planteatzen. Herrirako zerbait garrantzitsua egiten duzula uste duzu. Eskari bat bazela, baina ez genuen planteatzen zer ari ginen eskatzen". Zaindaria egiten ari ziren, azkenean. Kintotan ere "ez genekien zein zen gure rola. Hor geunden eta ospatzen genuen". Hein handi batean, zaindaria ziren ere.

Emakumeek dantzatu nahi zutela esaten hasi zirenean, "beraien mehatxua zen: eta nik Kantaitan egiten badut? Egin nahi baduzu. Ni ez naiz inor ezetz esateko". Baina gizonak ez dute egin nahi. "Ez dute protagonismo hori konpartitu nahi; ez da protagonismo duin bat. Zaintza da, erritu femenino bat. Ez dute horretan parte hartu nahi". Olatz Gonzalez antropologoak, Galarzaren GrALaren tutoreak, protagonista hitzaren jatorria azaldu zuen: "Proto eta agonista esan nahi du, hau da, agonerako lana egiten duena. Agonerako duina den pertsona, eta agona gerra da". Beraz,

"BERE MOMENTUAN ARAZO ASKO EGON ZIREN EMAKUMEAK DANTZATZEAREN HARIRA"

protagonista gizona da, agonerako duina delako. Agona egiten duelako. "Kantaitan protagonistak emakumeak dira, baina emakume hori zeihartasun bat bihurtzen da. Inpersonala da". Ez dute aurpegirik. Kolektibo bat da, "protagonismoa galtzen dute. Herria lagundu behar dute eta ez dute nabarmendu nahi". Kintoak "guztiz" kontrakoa dira. Besteak beste, Celia Moros, Van Gennep, Victor Turner eta Bourdier antropologoek lanetan oinarritu da.

"Antropologoa naiz eta tradizioak eta errituak izugarri gustatzen zaizkit. Baina aldatu daitezke eta aldatzeagatik ez du esan nahi lehen zuten garrantzia hori galtzen dutela". Errituak eta tradizioak gizarte eta ziklo baten isla direla azaldu du Galarzak: "Errituak gizartearen erakitzeko du eta gizartearen erakitzeko du". Hortaz, antropologoak festa hauek ospatzean "kontziente" izatea nahi du, "zertan parte hartzen ari diren eta nola parte hartzen duten konturatzeko". Bestetik, "gizona izateko" ez direla gauza "horiek" egin behar esan du: "Ez da behar petardo batestoldan batean sartzea gizona zarea erakusteko". Baina hori ikustea zaila da. Jarrera kritikoa izatea nahi du: "Gazteak nik uste kritikagoak direla, baina guk ere hausnartu behar dugu. Zaintza ez da berez txarra, baina muga horretatik aldentzea oso zaila da".



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Liderrak

Autoan nindoala, *Hil da Jainkoa* Pi L.T.-ko Rafa Ruedaren ahots grabe urratua jaurtitzen zuen irratiaren bozgorailuak. Ondoren, albisteen tartean, Messi Barçako jokalaria bikainaren soldata ezin bikainagoaren berri eman zuten, zehazki, bostehun eta berrogeita hamabost milioi euro lau urtetan, eta aurretik (eta ondoren) irabaziak aipatu gabe. Jakina da hainbat izarrek dirutzak irabazten dituztela, baina horrela entzunda... jainko arren! Kopuru hori beste modu batera esanda, hilean bi mila euro irabazten dituen langile batek hemeretzi mila zortziehun eta hogeitaz lan egin beharko luke kopuru hori berdintzeko. Ikaragarria!

Osasunako jokalaria ohi Michael Robinsonek kontatuta, Fowler jokalaria Ferrari bat erosi zuela eta Liverpool taldeak autoa itzultzeraz behartu omen zuen. Izan ere, horrelako auto bat gidatzea taldeko zaleekiko errespetu falta eta probokazioa omen zen, eta haiek jendearen menpe izateko omen zeuden. Messiren kasuan, berak sartzen ditu golak, baina zer egingen luke berak bakarrik? Taldeko hogeita piko jokalaririk gabe; langile teknikorik gabe; klubeko administraririk eta mantentze lanetako langilerik gabe; zalerik gabe; eta abar luze bat gabe. Zer izanen litzateke Messi

TRESNA ERAGINKORRAK EZARRI BEHAR DIRA ABERASTASUNA ERA DUINAGOAN ETA JUSTUAGOAN BANATZEKO

horiek denak gabe? Demokrazia' meritukratikoetan neurrik gabeko lidergoak eta eliteak sustatzen dira. Kudeatzaileek horrelako irabaziak justifikatzen dituzte, horrenbesteko aberastasuna sortzen omen du eta. Horrela, milaka bizitza bizita ere, gastatzerik izanen ez lituzketen ondasunak pilatzen dituzte. Bitartean, aurreko krisiaren eta oraingo koronabirusaren pandemiaren ondorioz, jende multzo handiak egoera zaurgarri eta penagarrian daude.

Messi munduko jokalaririk onena da, haren jokoa miresgarria, eta horrexegatik Sakanako eta Nafarroako haur askok futbol kamiseta eramaten dute 10 zenbakia eta haien idoloaren izena idatzita. Hala ere, gizarte komunitate batek meritua baliosteko duen neurrian dago gakoa, alegia, tresna eraginkorrek ezarri behar dira gizarteak sortutako aberastasuna era duinagoan eta justuagoan banatzeko. Bestela, 'demokrazia', eliteen tirania bihurtzen da.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Eutanasia

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Eutanasiaren legea martxan da. Honek eutanasia onartu, arautu eta aplikatzeko aukera emango du. Baina zertan datza? Egoera zehatz batzuetan gure heriotza nolako izatea nahi dugun erabakitzeak aukera ematen digu. Beharrezkoa bada eta hala nahi badugu, hiltzeko laguntza medikua jaso.

Eskaera egiteko, sufrimendu psikiko edota fisiko, denboran mantentzen dena eta jasangaitza egon behar dira bi egoeratan: gaixotasun larri edo sendagaitzean, edo oinaze

kronikoa eta ezgaitasun handia dakarrenean.

Adinez nagusiek egin dezakete eskaera eta erabakia hartu; boluntarioa, askatasunez eta norberak hartutakoa izan beharko du. Kanpo presioak ez daudela egiaztatu beharko da. Zehaztu gabe oraindik, prozeduraren pausuak hauek edo antzekoak izango dira, DMD taldeak adierazten duen moduan:

- Medikuari eskaera bitan egingen zaio. Eskaeren artean denbora tarre bat egonen da (15 egun inguru).
- Eskaera mediku kontsultore bati pasako zaio, eta honek aztertuko du (gaixoari elkarrizketa eta txostena).
- Komisio bati kasua pasako zaio. Hauek berriz aztertuko

dute, 2 pertsona ezberdin arduratuko dira. Azken txostena egin eta eskatzailearen medikuari erantzuna emango zaio.

- Baiezkoa bada hiltzen laguntzeko prestakuntzekin hasiko dira.

Izango dugun beste eskubide bat da hau. Gutxi batzuk erabiliko duten eskubidea ziurrenik –hala ikusi da araututa dagoen beste herrialdeetan– baina aukera izatea, garrantzitsua da.

Hainbat kasu ezagun izan dira azken urteetan. Lege honek, abortuarekin gertatu zen bezala, gaia klandestinitatekin ateratzen du, aukera eta modu egokian egingo denaren bermea eman. Ez da gutxi.

GUTUNA

Pentsiodunak hiru urte martxan

JOSEBA BARRIOLA

Aspaldikoa da pentsiodunen bizi baldintzak estutzeko joera. Aspaldikoa da zahartzaro lasai eta ziur baten desioa manipulatzeko plana: pentsio pribatuak martxan jarri eta hori errazteko desgrabazio fiskala. Aspaldikoa pentsio kantitatean dauden diferentziak: urrezko pentsioak (Juan Carlos Borbon jauna, Rouco Varela jauna, Gonzalez eta Aznar jaunak...) eta miseriazko pentsioak eta pentsiogabeak (gehienak).

Aspaldikoa da, krisi ekonomiko bakoitzaren aurrean, pentsioetan murrizketak egiteko joera. 2008ko krisiaren ondoren, murrizketak monumentalak izan dira: milioika gazte langabezian, eta jubilatzeak adina 67 urtera eraman; pentsioa

kobratzeko kotizazio urte kopurua handitu; bataz besteko bizitza adina luzatzen bada, pentsiodunei zigortu pentsio kopurua murriztuz. 2011n eta 2013an egin ziren Pentsioen Erreformak. Greba orokorrak egin ziren sindikatuek deituta. Kasurik ez.

Duela urte batzuk, amorrua piztu zuen pentsionistek jaso zuten eskutitzak. Inflazioa %1,5etik gora izan eta Rajoyren gobernuak %0,25 igo zituen pentsioak. Amorrus milaka eskutitza itzuli ziren. Amorru hartan piztu ziren kaleko manifestazioak. Altsasun ere hasi ziren. Martxoaren 3 batean manifestazio handi bat egin zen: 236 manifestari. Duela hiru urte Bilboko manifestazio erraldoia egin zen. Geroztik herri askotan egiten dira. Altsasun astelehenetan 12:00etan pentsionistak kalean daude.

Pentsionisten mugimendua sendotu da, eta bere eskaerak

zabaltzen joan dira: pentsio duina, 1.080 euro; soldata duina: 1.200 euro; Osasuna zainduz kopagorik ez! Pentsioetan berdintasuna gizon eta emakumeen artean. Alargunen pentsio miserablea irauli. Zahar egoitzak pentsiodunen bizi lekuak izan daitezten eta ez aparkalekuak.

Pentsiodunen mugimenduak bizitza duina izateko baldintzak eskatzen ditu. Ez da gure arazoa, soilik, denon arazoa da. Belaunaldien artean eskua luzatu behar dugu.

Horrela, otsailaren 13an guztiok kalera atera gaitezten –pentsionistak, eta langile finkoak eta prekarioak, langabeak, lana egin eta kobratzen ez duten etxeko andreak, zahar egoitzetan senideak gurasoak dituztenak...– kantatuz eta eskatuz: “Pentsionistekin Aurrera, goazen bizitza duina lortzera”.

guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

GUTUNA

Koskobilo: errepikatzen den historia**RAMON ALBARRAZIN MAULEON**

KOSKOBILLO DEFENDA DEZAGUN PLATAFORMA

Joan zen mendeko 40ko hamarkadan, Olaztin kokatu zen zementu enpresak burututako Koskobilo harrobiaren ustiapenak aztarnategi arkeologiko eta paleontologiko garrantzitsua suntsitu zuen. Zoritxarreko garai hartan, milioika historia urte berrikerarik gabe txikitu ziren arren, gaur egun oraindik ikerketa gai izaten jarraitzen du aztarnategi honek.

Hala ere, Ruiz de Gaona edo J.M. Barandiaran bera bezalako arkeologo eta antropologo entzutetsuei esker, eta nahiz eta ezin izan zuten zementu enpresak Nafarroako Goi Paleolitiko aztarnategi garrantzitsuenegandako txikizioa geldiarazi, Nafarroako Museoa eta beste hainbat erakundetan gordeta dauden aztarna garrantzitsuak bildu ahal izan ziren. Gaur egun egindako azken indusketetan ere aztarna aipagarriak aurkitu dira, besteak beste, garai hartako animalienak eta harrizko tresna ugariak.

Zementu enpresak 1975. urtean eten zuen harrobiko jarduna, baina 2014. arte mantendu zuen ustiapenaren kontzesioa. Bost urte geroago eta Nafarroako Gobernuaren eskakizunari erantzunez, lehengoratzeko proiektua aurkeztu du. Proiektu

honek bat egiten du garai berean NILSA sozietate publikoak aztarnategiaren beraren magalean dagoen ur-hondakinen araztegia handitzeko proiektua burutzeko duen asmoarekin. Lan horretan, 25.000 lur mugitzea eta Koskobilon botatzea aurreikusten da. Hondakindegia baimendun batean ordaindu beharreko isurpen tasak eta garraio kostua zein izan daitezkeen aintzat hartuta, begi bistakoa da honek NILSarentzat dakarren diru aurrezte.

Behin Koskobilo hondakindegia gisa erabiltzeko aukera zabaldua, enpresak lehengoratzeko izena duen proiektua aurkeztu du, baina lehengoratzetik gutxi du eta benetan isurketa handi bat besterik ez da. Urbasa magalean duen bere beste Egibilko harrobian sobera dituen 100.000 material baino gehiago bertan isurtzea aurreikusten du (7.000 bat kamioi). Ikus daitezkeenez, plan honek ez du zerikusirik eta ezin da inolaz ere alderatu harrobiak lehengoratzeko beste antzeko proiektu batzuekin. Hauetan 15.000 inguru lur begetal erabiltzea da ohikoena.

Berriz ere ondare suntsiketaren historia errepikatu egiten da. Berriz ere interes ekonomikoak "Nafarroako gure aztarnategi interesgarriena" (Ruiz de Gaona) babestu behar diren gainera, ahuntzetxeko bidean, erreka bitan zeharkatzen du eta haren ertzetan porlana jarrita zegoen. Bai-

Bakaikuko beheko basorako bidea itxita

Hura konpontzeko lanak abendu erdialdean bukatu ziren eta guztia heze dagoenez, inbertsioa alferrik ez galtzeko bidea itxi du udalak. Obra zuzendaritzaren ikuskaritzak zehaztuko du noiz zabaldu

BAKAIKU

Lantegiak salduta, udalek baso aprobetxamendutik ateratako diruaren %20 basoan bertan hobekuntza lanak egiten inbertitu beharra dute. Halakorik ez badute egiten, lan horietarako gero ez dute Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik jasotzen. Bakaikuko Udalak ikusirik beheko basorako bidea hainbat tokitan egoera txarrean zegoela, hura konpontzea erabaki zuen eta, horretara, 31.000 euro bideratu zituen. Bidea txukun egotea ere komenigarria da etorkizunean lantegi berriak ateratzea aurreikusi baitu udalak.

Basoko langatik, Ubakatzokotik ahuntzetxera bitarteko tartean hainbat lan egin dira, batez ere, aldapetan. Horretaz aparte, toki batean ur baltsa sortzen zela eta berriro ez gertatzeko bide azpitik hodia jarri dute. Gainera, ahuntzetxeko bidean, erreka bitan zeharkatzen du eta haren ertzetan porlana jarrita zegoen. Bai-



Bakaikuko ikuspegia. ARTXIBOA

na tarte txikia eta ibilgailuen pasarekin putzuak sortzen ziren aurrerago. Horregatik porlan zati horiek luzatu egin dituzte bidean.

Lanak abendu akaberan despeditu ziren. Baina erabilitako

materiala heze iritsi zenez, eta ordutik euria eta elurra egin duenez, lanen zuzendaritzak udalari bidea ixtea aholkatu zion, ibilgailuen pasak bestela inbertsioa hondatuko zuelako. Abenduaren 18az geroztik beheko basoko bidea itxita dago, eta "denboraldi luze batez" hala egonen da. Obra zuzendariak ikuskaritzak egiten ditu eta hark egoki jotzen duenean zabalduko du udalak bidea.

Zorrik gabe

Herriko kaleak berritzeko azken lanak egiteko Bakaikuko Udalak mailegua eskatu zuen. Egoitz Urriaza Lazkoz alkateak jakinarazi duenez, "joan den urtean kitatu genuen zorra. Urtero 22.000 euro eta interesak pagatu behar ziren. 2020an hori eta 10.000 euro gehiago ordaindu genituen mailegua kentzeko". Bestalde, diru sarrera gisa bi lantegi edo baso aprobetxamendu saltzea espero dute udalean.

Aprobetxamendu publikoen betebeharrei buruzko araudia

Hirigintza jardueretatik sortzen diren aprobetxamendu edo zuzkidura jarduerak arautuko ditu

ALTSASU

Herri batean hirigintza eraldaketako jarduera bat egiten denean, urbanizatutako lurzoruen zati bat udalarendako da. Horiei aprobetxamendu edo zuzkidura jarduerak deitzen zaie. Beti ere, lur eremuaren azaleraren arabera, hau da, udalei eman beharrekoa. Legean jasoa dagoenez, hirigintza zuzkidura horiek komunitate ekipamenduetara bideratu behar dira, hau da, parke, lorategi, aparkaleku eta bestelako zuzkidura publikoetarako.



Altsasuko udaletxea.

Lurrak ematea erraza da jarduketara sistematikoa egin behar duten tokietan. Ez, ordea, hiri-lurzoru finkatuko zuzkidura-jarduketarik gehienetan, hau da, herriguneetan. Izan ere, hala-koetan lur emate horiek ezin dira fisikoki gauzatu. Halako kasuetan aprobetxamendu edo zuzkidura jarduera egin nahi duen pertsonak edo erakundeak Altsasuko Udalari diru kopuru bat ordaindu beharko dio. Eta, hain zuzen, ordainketa horiek zehazteko ordenantza prestatzen ari da udala, eta herritarren iritziak jasotzeko parte hartzea bultzatzeko prozesua zabaldu du. Ordenantzaren zirriborroa www.altsasu.eus web orrian kontsultatu daiteke. Ekarpinak martxoaren 3ko 14:00ak arte egin daitezke altsasu@altsasu.net e-postaren bidez.

OBJEKTIBOTIK**Guaixe Altsasukoak Aske erakusketan**

Ibarrean gertatutakoaren berri ematea da gure egitekoa, Sakanatik sakandarrendako. Zero kilometroko kazetaritza, etxe ondoko informazioa; zure ezagunek idatzitakoa, zu zeu protagonista zaituena. Guztion artean, komunitatea. Sakanan, zuekin eta zuentzat, euskaraz.

Energia aholkularitza udal eta herritarrendako

Nafarroako Erdialdeko Tokiko Ekintzarako Taldea, Medialdeko Cederna Garalur eta Estellerriko Teder energiaren arloan elkarlanean ari dira. Toki erakundeei eta herritarrei konponbideak eman eta aholkularitza eskaintzen diete

SAKANA

Energiaren ikuspegitik Landa Iraunkortasuna lortzea. Helburu hori lortzeko elkarlanean ari dira Nafarroako hiru Tokiko Ekintza Talde. Horretarako, energiaren aurrezpena eta energia berriztagarriak sustatzen hasi dira, energia aurreztearen eta iraunkortasunaren gaineko aholkularitza eta akonpainamendu zerbitzua eskainiz herritar eta tokiko entitate guztiei. Horretaz Sakanan Garalur arduratzen da.

Aholkularitza eta akonpainamendua eskaintzeko teknikariak kontratatu dituzte. Aditu horiek udal, kontzeju eta mankomunitateei laguntzen diete beraien erabakiak hartzen, energia kontsumoak kontrolatu eta murrizten, energia kontsumitzaile diren instalazio publikoetan inbentarioak egiten eta kontratuak berrikusten hobekuntzak proposatzeko. Prozesuaren garapena bermatzeko, laguntza teknikoa emanen diete Alkatetzen Paktuak ekimenera atxikitako udalei.

Etxebizitzetan energia aurrezteko eta energiaren eraginkortasunerako neurriak hartu nahi dituzten sakandarrek ere jo dezakete Garalurrek eskaintzen duen doako zerbitzu horretara. Bertan, gainera, etxebizitzetan energia berriztagarrien instala-



Urdiaingo etxe batean jarritako eguzki plakak. ARTXIBOA

Informazio gehiagorako

Cederna Garalurren 697 655 664 telefonora hots egin edo infoenergia@cederna.es e-postara idatzi. Argibide gehiagorako www.cederna.eu webgunera jo.

ziorako aukeren inguruan informazio daitezke. Informazio hori sakandarren artean zabaltzeko Garalurrek tailerrak antolatzea aurreikusten du.

Horretaz aparte, sakandarrei energia kontratuen eta bonu sozialaren tramitazioaren inguruko aholkularitza zerbitzua eskaintzen du. Horretarako, hala egiteko eskatzen duen etxebizitza guztien energia faktura aztertuko da, kostuaz aparte, energia kontsumoa ere aztertuz, haren eta, hortaz, kostu ekonomikoaren murrizketarako neurriak proposatu ahal izateko.

Arbizuko kiroldegiko taberna errentan hartzeko aukera

Udalak enkante bidez emanen du taberna-jatetxearen kudeaketa. Proposamenak 11ra arte aurkeztu daitezke

ARBIZU

Arbizuko Udalak kiroldegiko taberna eta jatetxearen kudeaketa emateko enkantea deitu du. Udalak zehaztu duenez, ostalaritza zerbitzuaren kudeaketan interesa duten pertsonak euska-

raz jakin beharko dute, eta zerbitzua euskaraz emanen dela bermatu beharko dute. Deialdian jaso denez, lizitaziorako gutxieneko kanona hileko 350 euro (BEZ kanpo) da, urtero KPIrekin eguneratuko dena.



Arbizuko kiroldegiko taberna.

Sakanako



puntuak



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

LAKUNTZA
OGIBERRI OKINDEGIA

LIZARRAGA
UDALETXEA

OLAZTI
UDALETXEA

UHARTE
ARAKIL
UDALETXEA

URDIAIN
UDALETXEA

ZIORDIA
UDALETXEA

ALTSASU
IORTIA KULTUR GUNEA

ARBIZU
LONBRENDENDA

BAKAIKU
ESTANKOA

ETXARRI
ARANATZ
UDALETXEKO ESTALOPEAN

IRURTZUN
UDALETXEA

Egin zaitez bazkide!
Eta etxean jasoko duzu!



948 564 275 | 618 882 675
admin@guaixe.eus





Zuhaitz eguna, igandean. ARTXIBOA

Komunitatearen baratzen proiektua hastear

Baratzik ez duen eta interesa duenak 675 894 913 telefonora hots egin dezake izena emateko

ARBIZU

Arbizuko Udalak komunitate baratzak egitasmoa du eskuartean. Lurrik ez duenak eta baratza izan nahi duenari aukera eman nahi zaio horretarako, beti ere, baratzak modu naturalean edo ekologikoan landuz. Herriaren hegoaldean dagoen Beldarrin kalearen ondoko partzela batean sortuko ditu baratza horiek. 15 izanen dira, bakoitza 60 bat metro karratu ingurukoa. Arbizuko Udalak partzela bakoitzean ur hartunea eta kontagailua jarriko ditu. Baita baratze guztietako erabiltzaileen tresnak gordetzeko txabola txikia ere. Arbizuko Udala komunitate baratzen araudia zehazten ari da. Bitartean haietakoren batean interesa duenak 675 894 913 telefonora hots egin dezake izena emateko.

Bestetik, Arbizuko Udalak jakinarazi du Zuhaitz Eguna igandean ospatuko dela. Hitzordua 12:00etan jarri dute plazan, handik San Joan ermita aldera joateko, haren ondoan egingen baita landaketa. Udaletik herriaren 2020an jaino eta Arbizun erroldatutako haurrek Zuhaitz Egunean parte hartzeko gonbidapena jasoko dute etxean. Arbizun erroldatu gabe ere, landaketan parte hartu nahi duenak, aldeztatik udala abisatu beharko du.



Musika lagun, Ziurdiko kintoak etzez etzeko eskea egin zutenekoa. Aurten ezin, heldu den urtera atzeratu dute. ARTXIBOA

Aurten Burundan ez da kinto ospakizunik izanen

COVID-19ak eragindako pandemia dela eta, aurten ez da kinto ospakizunik izanen Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen, Olatzagutian eta Ziurdian. Aurretik jakina zen Altsasuko kintoek beraien ospakizunak heldu den urtera atzeratu dituztela

Alfredo Alvaro Igoa BURUNDA

Egunak hurbildu ahala, sakandar asko gogoratzen ari dira COVID-19 gaitzak eragindako pandemiaren aurretik ospatutako azken festez. Joan den urteko otsailean izan ziren: kinto ospakizunak eta inauteriak. Ondoren koronabirusa etorri eta errealtatea guztiz aldatu zigun guztioi. Agintariek gaitzari aurre egiteko makina bat neurri hartu zituzten, haietako bat festek hain berezko duten jende pilaketak. COVID-19 gaitzak ezinezko egin ditu kintoen moduko festak eta Burundako herri gehienetan gazteek beraien ospakizuna urte bat atzeratzea erabaki dute.

Bakaiku

Aurten Bakaikuko kinta bakarria Eider Vicente da. Kinto ospakizunetarako taldea sortzeko Bakaikun kinto zaharrak (hiru) eta kinto gazteak (bi) elkartzeko dira. Seiko segizioa txikia zelako, joan den urteko hiru kinto zaharrek ere festarekin bat egin behar

zuten. Bederatziko segizioa osatuko luke gauzak ongi. Baina ospakizunak urte batez atzeratu dituzte eta 2022an lau kintadetako gazteak izanen lirateke otsaileko festako protagonistak. Bosgarren kintada bat ere batu liteke, 2001ean jaiotako kinto zaharrak bat egiten badute.

Iturmendi

Urte zahar gauean *Ur goiena* abestia kantatzen kintoak kantueskean aritu ziren, jasotako dirua kinto ospakizunetarako gorde zuten. Aurtengo kintoek ospakizuna atzeratzea eta udan ospatzea pentsatu dute, baina festa noiz litzatekeen zehaztu gabe. Osasun egoerak horretarako aukerarik utziko ez balu, kinto iturmendiaren heldu den urtera atzeratu lukete festa. Aurten, gainera, Iturmendiko kintada handia da, zortzi gazte osatzen dute: Urtzi Galartza Urdaniz, Ahiletz Nuñez Galartza, Haizea Artola Lopez, Endika Zubieta Lopez, Martzel Etxeberria Azpilikueta,

Unax Gabirondo Agirre, Estitxu Mateos Galartza eta Alaia Goikoetxea Bengoetxea.

Haiekin batera bi urte zaharragoak eta bi urte gazteagoak diren gazteek osatzen dute kinto segizioa, guztira 24 gazte. Aurten kinto festarik ez bada ospatzen pentsatzea da heldu den urtean segizioa sei kintadek osatzea, kintotan zaharrenek haien azken urte galdu nahi izanen ez dutelako, eta kintada gazteenak bere txanda eskatuko duelako.

Iturmendiko kintoek urte zaharreko kanta eskeaz aparte, maiatzaren 1ean Arrano Beltza plazan jartzen den pagoa, maiatza, ekartzeko ardura dute. Joan den urtean ez zen maiatzik zutitu eta aurten ikusteko dago.

LAU HERRITAN 2022RA ATZERATU DUTE; ITURMENDIN, AHAL BADA, UDAN EGIN NAHIKO LUKETE

Urdiain

Zortzi urdindarrek osatzen dute aurtengo kinta: Oihan Etxeberria, Jon Chamorro, Martin Senosiain, Irati Irigoien, Madi Lizarraga, Eider Uharte, Txomin San Roman eta Aingeru Goikoetxea. Haiekin batera kinto segizioa kinto zaharrek eta kinto gazteek osatuko lukete; hiru kintadako taldea.

Ospakizuna urte bat atzeratzea erabaki dutenez, heldu den urtean kinto ospakizunak lau kintadek ospatuko dute. Aurtengo kinto zortzikotea heldu den urtean kinto zaharrak izanen dira, baina plazan zortzikotea dantzatzeko dute. Ziurrenik larunbatean egingen lukete eta 2022ko kintoek, berriz, domekan. Larunbatean zortzikotea dantzatzeko duten besteak 25 urte bete dituzten kintoak dira. Heldu den urtekoekin hitz egin beharko dute nola antolatu zehazteko. Bestalde, mende laurdena aurten bete duten kintoek zer egin erabaki beharko dute.

Urdiaingo kintoen zeregina da urte berriarekin batera iturriko ur berria hartzea eta hura udalako kideei eta apaizari eramatea. Osasun egoeratik aurten ezin izan dute uraren erritua berritu.

Olatzagutia

Gauzak ongi, Olatzagutiko kintak, txaranga lagun dutela, herrian barna eskean eta festa giroa zabalten ibiliko lirateke. Baina aurten Olatzagutian ez da kinto ospakizunik izanen. Hala erabaki dute udalarekin hitz egin ondoren. Joan den urtekoa 14 gazte osatutako kintada bazen, aurten lau neskek besterik ez dute kintada osatzen: Nuria Alberdi Jimenez, Maitane Vilariño Mendiñueta, Alea Orabengoa Caro eta Ainara Baztarrika Mazkian. Heldu den urtean kintoak ospatzea posible balitz bi kintek ospatuko lukete.

Ziurdia

Aurten laukote bat da kintoa: Xabier Bengoetxea, Naroa Barriola, Naroa Otxoa eta Ane Lapuente. Kintoek beraien bizkar dute ospakizunaren prestaketa: bazkari-afariak lotzea, musika-riak eta bestelakoak. Lau kintoekin batera kinto zaharrak eta kinto gazteak egon beharko lukete ospakizunetan. Guztira 14 kideko taldea osatuko lukete. Heldu den urtean hiru kintada beharrean lau izanen dira festa giroan, kinto gazteak batuko zaizkielako.



Altsasuarrak osasun etxera sartzeko zain azaroko egun batean.

Burundan mediko faltagatik kezkatuta

Altsasu, Olatzagutia eta Ziordirako sei mediku egon beharko lirateke eta hiru besterik ez daude. Haietako bat larrialdiez eta COVID-19 kasuez arduratzen da, eta beste biak kontsulta pasatzen ari dira. Beste osasun eskualdeetan egoera ez da hain larria

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Altsasuko osasun eskualdean sei mediku egon beharko lirateke lanean: lau Altsasun, bat Olatzagutian eta beste bat Altsasuz eta Ziordiaz arduratuko litzatekeena. Sei medikuetatik bat bajaran dago. Bestalde, profesionalen lekualdaketa garaian, bi plaza bete gabe daude. Bata, Olatzagutikoa, plaza hartu duen medikua bajaran dagoelako, eta beste plaza hutsik dago.

Horren ondorioz, hiru mediku 9.305 pertsonako eskualdeaz arduratzen ari dira. Egoera normal batean mediku bakoitzak bere kontsultak izanen lituzke, bat larrialdiez arduratuko litzateke eta beste bat COVID-19 kasuez. Azken bi agenda horiek mediku bakar baten bizkar gelditu dira, eta gainontzeko kontsulten ardura bi sendagilerena da. Altsasuko osasun etxeko langile batek esan duenez, medikuak "ezin iritsi daude, ittota. Oso gaizki daude". Langileak azaldu duenez, jakitun dira zer-

bitzuaren kalitatea "dudarik gabe jaitsi egin dela. Jendeari lasaitzeko eskatzen ibili behar dugu. Eta ez genuke horretan egon behar". Osasunbideak ordezko medikuak bidali zain, sendagileak ahal den moduan ari dira lana aurrera ateratzen.

Ereazioak

Altsasuko osasun etxearen egoera "larria" dela aitortu du Javier Olo Martinezek, Altsasuko alkateak. Olo jakinarazi duenez, "alkate gisa, Nafarroako Gobernuko Osasun Zuzendari Nagusiari bilera eskatu diot". Alkateak nabarmendu duenez, "aspaldiko egoera honi konponbide bat aurkitu behar zaio". Olo gaztigatu duenez, "egoera

**ALTSASU,
OLATZAGUTIA ETA
ZIORDIKO 9.305
PERTSONARENDAKO
HIRU MEDIKU DAUDE**

ra honek, berriro ere, agerian uzten du Nafarroako landa-eremuen eta Iruñerria eta Iruñeraren artean ez dagoela lurralde kohesiorik". Bestalde, Olatzagutiko alkate Joseba Vizuite Azkargortak ere "kezka" bizi du egoera osasun zerbitzu publikoak gaur egun duen egoera, "batez ere osasun egoera zaurgarria duten pertsonengatik".

Bestetik, Altsasuko EH Bilduk "osasun etxean azken asteetan ematen ari den egoerari konponbide bat eskatzeko" kontzentrazioa deitu du. Domekan izanen da, 13:00etan, udaletxearen parean, eta herritarrek parte hartzera deitu ditu. Bilkurak *Gure herrietan osasungintza bermatu* leloa izanen du. Koalizioko kideen iritziz, hiru medikuren hutsunea ez betetzea "herritarrek jaso beharreko arretaren kalitatea dezente kaltetzen du, are gehiago pandemia egoera batean".

Bi eskualde gehiago

Irurtzango osasun eskualdeko langile batek jakinarazi dutenez, plantillan faltan duten profesional bakarra pediatra da, azartik ez dute hurrez arduratzen den profesional espezializaturik. "Pediatriako erizaina arduratzen da txikienez, eta behar izanez gero loturako pediatra bat dago Iruñean eta hari hots egiten zaio". Bestela, pandemia hasi denetik osasun etxeko atak zabalik izan dira. "Izan ditugu lan karga handiko uneak, baina ez dugu aparteko ordurik sartu behar izan". Langile batek ez beste guztiek oporrak nahi izan zituztenean hartzeko aukera izan zutela azaldu dute ere.

Etxarri Aranazko osasun eskualdetik azaldu dutenez, plantilla beteta dute. "Lakuntzaz eta Arbizuz arduratzen zen medikua abenduan jubilatzen zen eta, orain arte, ahal zen bezala bete ditugu txandak. Haren bakantea beste sendagile batek bete du, baina heldu den astelehenetik bajaran egonen da eta ikusi beharko dugu nola artatu Lakuntzako eta Arbizuko jendea. Osasunbidearen zain gaude". COVID-19 kasueta-rako ate propioa dute eta baita erizain bat horretan aritzen dena.

Osasun eskualdeetako plantillak

Irurtzango osasun eskualdea

Haren ardura dira Lekunberri, Betelu, Larraun eta Araitz. Eta Sakanan Arakildik Arruazuraino. Irurtzunen 2 mediku, 2 erizain, 2,5 administratibo, pediatra (plaza hutsik), pediatria erizaina eta gizarte langile bat daude (astean bitan Irurtzunen eta beste hirutan Etxarri Aranatzen) eta Uharteko Arakilgo kontsultategian mediku bat eta erizain bat.

Etxarri Aranazko osasun eskualdea

Lakuntza eta Urdiain arteko osasun eskualderako 4 mediku daude: 1 Lakuntza-Arbizu (astelehenean bajaran izanen da), 2 Etxarri-Ergoiena, 1 Bakaiku-Iturmendi-Urdiain, 4 erizain (medikuen banaketa bera), 4 administratibo, pediatra bat, pediatria erizaina eta gizarte langile bat (astean hirutan Etxarri Aranatzen eta beste bitan Irurtzunen).

Altsasuko osasun eskualdea

Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia hartzen ditu. 6 mediku: 4 Altsasun (bi bajaran), 1 Olatzagutian (bajaran), 1 Altsasu-Ziordia, 6 erizain (berdin banatuta), pediatria bat, pediatriako erizaina, 4,5 administrari, eta gizarte langile bat.

**C.A. OSASUNA
S.D. EIBAR**

OTSAILAK 7, IGANDEA
18:30-20:30
(IRRATIKO KONEKXIOA 18:15ETAN)

**EUSKALERRIA
IRRATIAREN BIDEZ**

euskalerrirratia

beleixe 107.3 FM

ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS



Preso eta iheslarien etxeratzea eskatzeko Etxarrin egindako manifestazioa. ARTXIBOA

Karasatorre 180 km-tara hurbildu eginen dute

Castello II-ko kartzelatik (480 kilometrora) Kantabriako El Duesoko espetxera eramanen dute (180 km-ra)

ETXARRI ARANATZ

Espainiako Espetxe Erakundeak hiru preso hurbildu eta beste bi Euskal Herriratuko zituela jakinarazi zuen ostiralean. Hurbilduko dituzten presoan artean Juan Ramon Karasatorre Aldaz etxarriarra dago. Eramanen duten El Dueso kartzelan Euskal Preso Politikoen Kolektiboko (EPPK) hamar kide daude.

Etxarriarrak zigor luzea du. Besteak beste Gregorio Ordoñez PPko burua, Enrique Nieto Viyella Poliziako inspektore burua eta Mariano de Juan Santamaria Loiolako kuartelean destinatu-

tako Armadako brigada 1995ean hiltzeagatik zigortu zuten. 2013ko azaroaren 28tik dago kartzelan eta zigorraren hiru laurdenak 2029an beteko ditu. Indarkeriaren erabilera errefusatu eta biktimei eragindako mina ordaintzeko nahia adierazi ondoren, Karasatorre bigarren gradura pasatzea erabaki dute ere, beraz, espetxe onurak lortzeko aukera luke.

Sakanako EPPKko sei presoetatik oraingoz bakarra hurbildu dute: Luis Mariñelarena Garziandia. A Coruña-ko kartzelatik Palentziakora lekualdatu zuten.

"Ezin ditugu auziak erantzunik gabe utzi"

Ruben Gelbentzu Gonzalezen auzipetzea salatu eta hari elkartasuna adierazteko 600 pertsona elkartuko dira. "Herri gisa erantzutera" deitu zuten, "zapalkuntzarik gabeko Euskal Herri aske bat eraikitzen"

ARBIZU

Espainiako Auzitegi Nazionalak ETak Leitzaan 2002ko irailaren 4an leherkariz egindako atentatu bategatik epaiketa egiteko prozedura abiatu du. Atentatu hartan Juan Carlos Beiro guardia civila hil eta beste lau agente zauritu ziren. Auzitegiaren akusatuen aulkian lau euskal herritar eseriko dira, tartean Ruben Gelbentzu Gonzalez.

Deitzaileek azaldu zuten, "akusazioen larritasuna ikusita, ondorioak oso larriak izan daitezke, hau dela eta, gure elkartasun guztia beharrezkoa izanen da errepresio kasu berri honi aurre egiteko". Gaztigatu zuten, "euskal herritarren kontrako eraso hau ez da kasu isolatu bat eta agerian uzten du Estatuaren izaera zapaltzailea. Askatasun grina duen herria da Euskal Herria eta sistema honen aurka borrokatzen jarraitzen dugun bitartean errepresioarekin erantzuten jarraituko du Estatuak".



Larunbatean 600 pertsonatik gora elkartu zituen auzia salatzeako manifestazioak.

Mobilizazioaren akaberan "eraso honen erantzuleak seinalatu" zituzten. "Ismael Moreno, Auzitegi Nazionalako epaile faxista eta polizia ohia. Aurretik ere Jon eta Ruben espetxeratu zituen bera, baina frogarik ez

zuenek, libre utzi behar izan zuten". Bestetik, "Guardia Civila, Rubenen eta Jonen aurreko epaiketan 'alguien se lo tiene que comer' adierazi zuena". Eta, azkenik, "Covite eta AVT bezalako elkarteak".

DUELA 25 URTE...



Etxarriko ludoteka berriro zabaldu zen

Udaletxeko goiko pisuan lanak egin zirela eta ludoteka handik atera behar izan zuen Etxarri Aranzko Udalak eta zineman kokatu zuen. Hori eta legegintzaldi aldaketak ludotekak atek ikasturtearekin batera ez zabaltzea ekarri zuen. 4 urtetik 12 urtera arteko haurrak hartu zituen, talde batean 4 eta 7 urte bitartekoak zeuden eta bestean 8 eta 12 urte artekoak. Ludotekak astean lau orduz zabalduko zuen. Taldeen ardura Maria Flores urdiaindarrarena eta Aitziber Etxaiz altsasuarrena zen.

Langileek udalari hitzarmena betetzeko eskatu diote

"Erabakia berriro aztertzeke eta kaleratutako lankidea birkokatzeke" eskatu dute

OLATZAGUTIA

Olatzagutiko Udaleko langileen batzarrak "gaitzetsi" du udalak "bere ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osoa aitortu zaion lankide bat" kaleratzeko erabakia. Langileen batzarrak udalari "bere erabakia berriro aztertzeke eta udalaren Lan Hitzarmena betetzeko" eskatu dio, "orain kaleratutako lankidea birkokatuz". Batzarreko kideek azaldu dutenez, kaleratutako langilea E mailako funtzionarioa da, "mailarik baxuena" eta aitortutako ezintasunarekin "funtzionario baten oi-



Olatzagutiko udaletxea. ARTXIBOA

narri arautzailearen %55eko soldata dagokio".

Batzarreko kideek Lan Hitzarmenaren 35. artikulua D puntuari, lan egiteko ezinduko birkokatzeari dagokiona, erreparatu diote eskaera egiteko. Han jaso dagoenez, "udalak, ahal den guztietan, bere hondar gaitasunarekin bateragarria den lanpostu batean jarriko ditu ezintasun iraunkor osoa aitortzen zaien langile finkoak. Nolanahi ere, eragindako pertsonak orain arte jasotzen zituen ordainsariak osatzeko adinako lanaldi partziala egin ahal izateko ahalegina egingo da. Osasun arazoengatik langile finkoen lanpostu-aldaketak egin ahal izango dira, medikuaren txostenarekin". Ziurtatu dutenez, "badakigu udal honetan ugari direla ezintasun horrekin egin daitezkeen lanak".

Urte batean 305 langabe gehiago

Urtea 887 enplegu eskatzaileekin hasi genuen eta akaberan 1.192 ziren. Joan den urtean langabezian gelditu zirenen %60 gizonezkoak ziren (183) eta %40 emakumezkoak (120)

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

COVID-19 gaitzak markatutako urtean ekonomia jarduerak atzera egin zuten eta, ondorioz, langabezia handitu egin zen Sakanan, 887tik 1.192 langabetu izatera pasaz. Urteko lehen erdian 185 sakandar izan ziren lana galdu zutenak (%60,65); bigarren erdian, gainontzeko 120ak (%39,34). Generoari erreparatuta, urte hasieran langabezian zeudenen %55,03 (656) emakumezkoak ziren eta gizonezkoak, berriz, %44,97 (536). Gizonezkoen langabezia 5,17 puntu igotzeak ekarri du generoen arteko aldea txikitzea, 2019 akaberan %60,2 eta %39,8 baitzen.

Adina eta sektoreak

Adinari erreparatuta, langabe kopururik handiena duen lan taldea 45 urte edo gehiagokoena da, %48,15. Guztira 574 dira lan merkatuan sartu nahi dutenak, aurreko urtean baino 76 gehiago, langabe berrien %24,92. Lan eskatzaileen kopuruari erreparatuta hurrengo taldea 25 eta 44 urte artekoa da, %39,85. Langabeen 475k dute adin hori, urte

batean 145 gehiago, 2020an langabezian gelditu zirenen %47,54. Kopuruari dagokionez, azken adin taldea 25 urtez azpikoena da, %12 (143). Joan den urtean adin tarte horretako 76 gazte gehiago gelditu ziren langabezian, 2020ko langabeen %24,92.

Sektoreka, langabe gehienak, 705 (%59,14; 2019an baino 113 gehiago, joan den urteko langabeziaren %43,61), zerbitzuen arloan lan egiteko prest leudeke. Industrian lan egin nahiko lukete 316 pertsonak (%26,51; 117 gehiago, hazkunderaren %38,36). Eraikuntzan lanean 44 langabek aritu nahiko lukete (%3,69; 2019ko kopuru bera) eta lehen sektorean, berriz, 33 langabek (%2,77; 12 gehiago, langabe berrien %3,93). Azkenik, aurretik enplegurik izan ez eta lanean aritu nahi luketen 94 sakandar zeuden ize-na emanda enplegu bulegoan.

Kontratazioa


Nafarroan joan den urtean sinatu ziren 305.030 kontratuen %2,1 sakandarren sinadura dute, 6.405. Herrialdean aurreko urtean baino 93.787 kontratu gutxiago si-

natu dira (%23, 51 gutxiago) eta ibarrean, berriz, 1.954 (%23,37 gutxiago). Langabezia datuetan generoen arteko aldea 5 puntuko bada, kontratuetan 3 puntura txikitzen da aldea (%52,91 gizonezkoak, %47,09 emakumezkoak). Hau da, emakumezkoek kontratu labur gehiago sinatzen dituzte (3.389 gizonezkoen kontratuak, 3.016 emakumezkoenak).


Sakanan joan den urtean sinatu ziren kontratuen %92,68 hasieratik aldi baterakoak ziren (5.936). Sinatu ziren kontratuen %4,47 mugagabe bihurtu zirenak dira (286). Eta, azkenik, hasieratik mugagabe ziren kontratuak %2,86 izan ziren (183).

Joan den urtean Sakanako kontratuen %42,78 altsasuarrek sinatu zituzten (2.740). Ehunekoan segida hau da: Irurtzun %14,36 (920), Lakuntza %8,73 (559), Etxarri Aranatz %7,65 (490), Uharte Arakil %6,1 (391), Arbizu %6,01 (385), Olatzagutia %5,48 (351), Urdiain %5,46 (350), Arakil %1,47 (94), Bakaiku %0,45 (29), Ergoiena %0,42 (27), Iturmendi %0,39 (25), Ziordia %0,39 (25), Irañeta %0,16 (10) eta Arruazu %0,14 (9).


2020ko langabezia Sakanan




2020ko langabezia adinaren arabera



2020ko langabezia sektorearen arabera



2020ko kontratuak sektorearen arabera



2020ko langabezia Sakanan herrika



Oparitu
egin didate.

Kaixo, Laura!

Guaixe Fundazioaren
bazkide egin naiz eta!
Guaixea etxean
jasotzen dut eta
deskontuak eta
abantailak ditut orain. 😊

SAKHNAN
ZUEKIN
ETA
ZUENTZAT EUSKARRAZ

 **guaixe**
fundazioa

JON
OTAEGI
ALTSASU
Langilea

Egin z
bazk
Hilabetean
Bazkidetu orain eta



Informazio gehi
948 564 275 | 618
admin@guaixe.

Kaixo, Jon!
Poltsa berri hori?

Eta hori?

Egia! Beleixe irratan
entzun nuen.
Oraintxe deituko dut ba,
ni ere bazkidetzeko!

zaituz
kide!

€1en truke

a jaso **oparitxo** bat!



ago:
882 675
eus



LAURA
OLMOS
ALTSASU
Langabea

Bi etxebizitza egiteko dirulaguntzaren zain

Lizarragako Kontzejuak Bargazpi tabernaren gainean alokatzeko bi etxebizitza egin nahi ditu. Aurtengo aurrekontuan horretarako diru saila gorde du, baina Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik gabe ez luke inbertsiorik eginen

Alfredo Alvaro Igoa LIZARRAGA Medikuaren etxea zenaren beheko solairua konpondu eta han Bargazpi taberna zabaldu zuen Ergoienako Kontzejuak 2019ko garagarrilaren 9an. Gainean dagoen solairuan auzolanean hustu zuten lizerratarrek. Unai Navarro Razkin Lizarragako Kontzejuko presidentearen azaldu duenez, "130 metro karratuko inguruko planta du han bi etxebizitza egin nahi ditugu, alokatzeko". Urtetik urtera biztanleria galtzen ari den herriari bizia emateko modua litzateke etxebizitza horiek betetzea. Bide batez, alokairuak kontzejuarendako diru sarrera berria lirateke.



Bargazpi mustu zen eguna.

Baina Lizarragako Kontzejuak ezin dio bera bakarrik lanei aurre egin. "Guztira 80.000 euroko aurrekontua izanen dute lanek. Guretako gehiegi da. Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskatu diogu. Aurrekontuaren %30eko dirulaguntza jasotzea nahi genuke. Erantzunaren zain gaude". Laguntzarik jasoko ez balute lana ez luketela eginen azaldu du Navarrok.

Bestalde, "Lizarragara gazteak bizitzera erakartzeko", kontzejuak Intxorreta kalearen 17an duen 279 m²-ko lursaila 21.780 eurotan (BEZ barne) du salgai (Ergoienako udaletxearen aldamenekoa).

Itxesi eta Bidezarreko argiteria berrituko du Uharteko Udalak

Uharte Arakilgo Udalak Itxesi eta Bidezar auzoetako argiteria publikoa berritzeko lanak emateko deialdia egin du. Lan horien bidez argiteria publikoko argindar aginte koadroen babesak eta teknika baldintzak egungo legedira egokitu nahi ditu udalak eta, horrekin batera, azpiegituraren segurtasun neurriak hobetzeko. Aldi berean, aipatu bi auzoetako argiteria publikoa berrituko litzateke. Egungo 70 bonbilla eta 11.750 wattioko potentziatik 66 LEDetara eta 8.098ko potentziara pasako litzateke. Horrela, Uharte Arakilgo Udalak argindar kontsumoa murriztu eta, ondorioz, faktura txikituko du.

Interesa duten enpresek beraien eskaintzak otsailaren 15era arte aurkeztu daitezke Uharte Arakilgo Udalaren egoitza elektronikoa. Lanek 59.453, 27 euroko aurrekontua dute (BEZ barne). Lanak bere gain hartzen dituen enpresak hiru hilabete izanen ditu haiek despeditzeko.



Olatzagutiko ikuspegia. UTZITAKOA

Olatzagutiko Udalak lantegia saltzeko enkantea deitu du

Sagarminsaroi, Muskilin, Le-sundegi eta Kintanatzekin dauden lantegiak enkante bakar bidez saldu nahi ditu Olatzagutiko Udalak. Guztira 1.013, 4 m² duten pago, Amerikako haritz eta bertako haritzaz osatutako lantegia da eta harengatik udalak, gutxienez, 17.552,38 euro (BEZ kanpo) eskatzen ditu. Interesatuak proposamenak otsailaren 11rako aurkeztu behar dituzte.

Probestu gure olatua!

Zure negozioa Guaixte astekarian, Belexe irratan edo guaixte.eus-en.

**661 52 32 45
948 564 275
(1 luzapena)**

Kattalinguneraren jendaurreko aurkezpena

LGTBI+ arloan harrera eta informazioa emateko Nafarroako Gobernuaren zerbitzuak bere burua aurkeztuko du asteartean, 18:00etatik 19:30era, Iortia kultur gunean. Edukiera mugatua da

ALTSASU

Kattalingune Nafarroako Gobernuaren LGTBI+ informazio eta arretarako zerbitzu publikoa da, sexologian eta generoan espezializatutako langileek artatua. Sakanan ere presente dago. Hara jotzen duenak honako zerbitzuak jasoko ditu: LGTBI+ eremuko informazioa, arreta eta orientazioa; sexu aholkularitza; lege aholkularitza eta LGTBI+ kolektibo eta proiektuei laguntzea.

Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak Kattalingune altsasuarrei aurkezteko ekitaldia prestatu du. Hitzordu berean Naizen, adingabe transexualen familien elkarteak, eta Hormak,



Olatzagutiko aurkezpena. UTZITAKOA

Mendialdeko LGTBI+elkartek, beraien berri emanen dute. *Ho-moamak* film laburra ikusteko aukera izanen da ere. Aurkezpenaren interesa dutenek gonbidapena Iortia kultur guneko txarteldegian edo www.iortiakultura.com/eu webgunearen bidez eskuratu dezakete.

Bestalde, profesionaleri zuzendutako Kattalinguneraren aurkezpena antolatuko du osteguneko, 11:00etan, Iortia kultur gunean. Saioan parte hartu nahi duten profesionalak udal Berdintasun Zerbitzuan eman beharko dute izena: berdintasuna@altsasu.net e-postan edo 948 564 823 ala 628 328 593 telefonoetan.

Lanbide Heziketatik kirol ikasketak kendu nahian

Hezkuntza Departamentuak jakinarazi duenez, Mendi Ertaineko eta Eskalada Zikloa Irunberriko institutura eramanen du. Aurtengoa ikasketa horien zortzigarren ikasturtea da Sakana LH institutuan

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA
Sakana Lanbide Heziketako (LH) institutuan ez da Mendi Ertaineko eta Eskaladako Kirol Teknikari zikloko hiru ikastaroetako bat bera ere eskainiko heldu den ikasturtean. Ikasketa horiek Irunberrira eramanen dituzte. Hala jakinarazi du Hezkuntza Departamentuak, inolako argi-

biderik eman gabe. Institututik galdetuta, hezkuntzako ardura-dunek adierazi dietenez, "diskreziogatik ez da egokia informazio hori zuek jakitea".

Irakasleek jakin dutenez, Nafarroan kirol-lanbidean haste-ari eta jarduteari buruzko 18/2019 Foru Legearen 17. xedapen gehigarrian oinarritu da departa-

mentua aldatuta egiteko. Hartan jasotzen denez, departamentuak Jarduera Fisikoaren Familiako Lanbide Hezkuntzako eskaintza publikoa egingen du Iruñerrian. "Horrek ez du esan nahi legeak behartzen duenik eskaintza hori gure ikastetxetik kentzea".

Departamentuak hartutako erabakiak "harridura eta ezi-



Irakasleek deituta, hainbat eragileren arteko bilera egin zen institutuan herenegun.

negona" sortu du irakasleen artean. Ikasketa horiek Sakana LH institutuan 8. ikasturtea

dute. Zentroko irakasleen arabera "ikasketak ikastetxean errotuta daude".

"Informazio eta gardentasun falta salatzen dugu"

JON BONGOETXEA INTXAUSTI LHKO IRAKASLEA

Hezkuntza Departamentuak Sakana Lanbide Heziketa Institutuko Mendi Ertaineko eta Eskalada Zikloa Altsasutik Irunberrira eramanen duela jakinarazi du

Aipatu ikasketetako irakasleak argibideak eman ditu.

Nola hartu duzue Hezkuntza Departamentuaren erabakia?

Sorpresa handia izan da. Oporretatik bueltan zuzendariak eman zigun departamentuaren asmoen berri.

Zergatik egin nahi du Hezkuntza Departamentuak aldatuta hori?

Ez dugu inongo informaziorik. Behin eta berriro eskatu dugu. Hainbat bidetatik saiatu gara informazio hori jasotzen. Baina Hezkuntza Departamentuak ikastetxeari eskatu dio informaziorik ez emateko. Eta behin eta berriro erabili duen kontzeptua edo ideia diskreziota izan da. Beraz, ez dakigu zein izan den arrazoia. Hain zuzen ere hori eskatzen ari gara. Eskubide osoa daukagu arrazoi horiek ezagutzeko.

Nahikoa matrikula du ziklo horrek?

Bete-betea dago. Nafarroako, Euskadiko eta Estatuko beste probintziatiko ikasleak hartzen ditu. Izan ditugu Kordobatik, Cuencatik eta Avilatik etorri diren ikasleak. Taldeak beti %100ean bete izan dira. Gehienbat horrek harritzen gaitu. Izugarritzko arrakasta daukate ikasketek horiek, hainbat probintziatik eta Estatu osoatik etortzen dira ikasleak interes handia dutelako. Azken berri honek ezustean harrapatu gaitu.

Institutuan beharrezko baliabideak daude?

Ikasketek hiru atal dituzte. Alde batetik, atal teorikoa, ikastetxean egiten duguna. Eta gero atal praktikoa mendian egiten dugu, batik bat, Urbasa-Andian edo Aralarren. Hirugarren atala, praktikak, inguruko enpresetan egiten dituzte. Beraz, dena antolatuta dago eta paregabea da hemen dugun espazioa eta lekua. Ezin hobea da.

Zer dago erabaki horren atzean?

Erabaki politiko bat dela. Baina, esan bezala, iritzi bat besterik ez da. Benetan atzetik zer dagoen ez baitakigu. Horregatik ari gara behin eta berriro gardentasun falta salatu nahian.

Zergatik deitu duzue bilera?

Alde batetik, eskatu genuen ikastetxean klaustroa egiteko, eta esan ziguten hezkuntzako ordezkari bat etorri arte ez genuela klaustro hori izanen. Beraz, joan den astean irakasleok asanblada egin genuen eta denak ados geunden zerbait egin behar genuela. Astelehenean lan batzordea sortu genuen eta erabaki genuen inguruko hainbat estamenturi deialdia egitea. Asteazkenean izan genuen bilera hori. Izugarritzko arrakasta izan zuen, eta parte hartu zuten: Nafar Lansare, Sakanako Garapen Agentzia, Zelandi eskola publikoko zuzendaria, CCOO, ELA, LAB, STEILAS, AFAPNA, ikasleen ordezkariak, Sakanako Herri Eskoletako koordinatzailea, Altsasuko alkatea eta Bidelagun turismo elkarte. Denak ados zeuden: departamentuak hartu



Jon Bengoetxea Intxausti, Mendi Ertaineko eta Eskalada zikloko irakaslea.

"HIRU KURTSOAK %100EAN BETETA DAUDE. IZUGARRIZKO ARRAKASTA DAUKATE IKASKETEK"

nahi duen erabaki horren kontra zerbait egin behar dela.

Eta zer egingen duzue?

Gaur prentsaurrekoa emanen dugu ikastetxean, 11:00etan. Horretaz aparte, asmoa da honi buruzko galdera egitea Nafarroako Parlamentuan. Ea zer nolako erantzuna ematen diguten. Eta, bide batez, hezkuntza kontseilariari galdera formal bat egitea. Aipatu da ere sektoreko mahaia

osatzea, gai hau argitzeko eta, bide batez, ikasketa horiek Altsasutik ez eramateko.

Zer eragin izanen luke ikastetxean ikasketa horiek kentzea?

Ikastetxeak 40 ikasle galduko lituzke. Hori asko da. Bestalde, ikasle asko kanpotik etortzen dira eta eskualdean lotara gelditzen dira, alokatutako pisuetan edo landetxeetan. Zerbitzuak erabiltzen dituzte. Ostalaritzak ere galdu egiten du. Ez du bakarrik ikastetxeak galtzen, Altsasuk eta Sakanak ere.

Hezkuntza Departamentuak ikasketa berriren bat ekarriko du?

Ez dugu inolako informaziorik. Eta hori da salatzen ari garena: gardentasun falta. Ez dugu informaziorik.

Binakako Txapelketan bide ona berreskuratzera

PILOTA Binakako hasierako ligaxkako 6. jardunaldian Ezkurdiak eta Ladis Galarzak garaipenaren xendan jarraitu nahi dute, Elezkanok eta Zabaletak lidergoari eutsi nahi diote eta Jakak eta Martijak Bilboko porrota atzean utzi nahi dute

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Binakako Txapelketako azken jardunaldiak gazitik gehiago izan zuen gozotik baino. Bi porrot mingarri, Elezkanok-Zabaletarena eta Jaka-Martijarena, azken hauena bereziki, eta Ezkurdiak-Galarzaren garaipen itxaropenetsua utzi zituen. Asteburuan 6. jardunaldia jokatu da eta jokoan dauden puntuak eskuratu nahi dituzte pilotari sakandarrek.

Ezkurdiak eta Galarzak bide onari segida eman nahi diote

Ezkurdiak eta Ladis Galarzak Olaizola II.a eta Rezusta izanen dituzte aurkari gaur, ostirala, Azkoitian (22:15, ETB1). Asteazkenean egin zuten material aukeraketa eta bi bikoek adierazi zuten "partida zaila" dutela aurretik.

Arbizukoa eta Baraibarkoa txapelketan behetik gora egiten ari dira. Gaizki hasi ziren, baina azken bi jardunaldiak irabazi dituzte eta euren arteko konfiantza bereganatzeko ezin hobe etorri zaie hori. Aurreko ostira-lean Bengoetxea VI.ari eta Aranguren 21 eta 19 hartu zituzten mendean, partida oso lehiatu eta paretuan. Egindakoarekin gustura, bide onean jarraitu nahi dute, baina arerio oso latzak dituzte gaur, jokatuako 5 partidetatik 4 irabazi dituzten Olaizola II.a eta Rezusta. Azken hauek lidergoa eskuratu nahi dute, baina ari dira jokatzeko igandean 2 tantotan utzi zituzten Jaka eta Martija-, eta faboritoak dira, baina Ezkurdiak eta Ladis Galarza euren jokoa egiten saiatuko dira, partidari erritmoa jartzen eta pilotari abiadura ematen, eta ea Olaizola joko kanpo uzten eta Rezustari aurre egiten asmatzen duten.

Elezkanok eta Zabaletak buru izaten jarraitu nahi dute

Larunbatean Elezkanok II.ak eta Zabaletak Urrutikoetxearen eta



Ezkurdiak eta Ladisek bigarren garaipena lortu dute jarrian. PEDRO URRESTI

Imazen kontra jokatu dute Labastidan (17:15, ETB1). Liderrek euren lehen partida galdu zuten larunbatean Peña II.aren eta Albisuren kontra, Labriten. Hotz atera ziren kantzara Elezkanok eta Zabaleta, eta arerioak 0 eta 8 aurreratu ziren. Zabaleta lanean hasi zen, eta gutxika, hamarrera berdintzea lortu zuten Aspekoek eta partida izugarri gogortu zen. Zabaletaren eta Albisuren lehiak, pilotakadak ikusgarriak izan ziren, tantoak, gogorrak, eta lehia, oso estua. Azken txanpan hasieran egin beharreko lan gogorra garesti ordaindu zuten Elezkanok eta Zabaletak, Peñak eta Albisuk 20 eta 22 irabaztea lortu baitzuten 622 pilotakada gurutzatu ziren partida gogorrean.

Larunbatean garaipenaren bidea berreskuratu nahi dute Elezkanok II.ak eta Zabaletak. Lider jarraitzen dute, baina puntu berdinekin daude Altuna-Mariezcurrrena eta Olaizola II.a- Rezusta, eta irabaztea garrantzitsua da. Baina Altunaren eta Mariezcurrrenaren kontra galtzetik datozen Urrutikoetxeak eta Imazek euren 3. puntu litzatekeena lortu nahi dute, eta partida lehiatua espero da.

Jaka eta Martija, Bilboko ahaztera

Astelehenean, otsailak 8, Jakak eta Martijak Artola ordezkatu duen Bengoetxea VI.a eta Aranguren izango dituzte aurkari Zeanurin (22:30, ETB1). Partida sailkapena ixten duten eta puntuen falta larria duten bi bikoteen arteko lehia izanen da.

Jaka eta Martija nahiko ukituta iritsiko dira partidara. Igandean Olaizola II.aren eta Rezustaren kontra jipoi gogorra jaso zuten. Eskuin eskuo arazoak gainditu bidean, Martijak tako gehiagorekin jokatu zuen, eta infernu latza bizi behar izan zuen. Ez zuen pilotakadarik gozatu eta oso deseroso aritu zen. Horrek sekulako airea eman zien Olaizolari eta Rezustari, Aspeko bikoak euren mailatik oso urrun ibili baitzen. Horrela, bi tantotan utzi zituzten Jaka eta Martija, sufrikario latza izan zuen partidaren.

Jakak eta Martijak egindakoa ahaztu eta bigarren puntu litzatekeena lortu nahi dute. Baina asmo bera dute oraindik garaipenik lortu ez duten Bengoetxeak eta Aranguren. Zulotik ateratzen hastea da Zeanurin jokoan dagoena.



Ruben Mendieta, eskuinean, Espainiako Kluben Arteko Txapelketan. ARTXIBOA

Nafarroako Pista Estaliko Txapelketako bi domina Sakanara

ATLETISMOA Ruben Mendieta 800 metroko Nafarroako txapeldunordea da eta Iraitz Senar 3.000 metrokoa

Larunbatean Nafarroako Pista Estaliko Atletismo Txapelketa Absolutua jokatu zen Donostia-ko belodromoan, Euskadiko Txapelketa bertan jokatzeko zela aprobetxatuta. Nafarroako Txapelketan bi sakandarrek zilarrezko domina lortu zuten.

Lasterketak

Gizonezkoen 800 metroko Nafarroako Txapelketa oso estu egon zen. Azkenean, Hiru Herriko Ivan Legal izan zen txapelduna (1:56.49), Grupompleo Pamplona Atletico taldeko Ruben Mendieta olaztiarrari segundo bat ate-

rata (1:57.62). Beraz, Nafarroako txapeldunorde dugu Ruben Mendieta.

Gizonezkoen 3.000 metroko Nafarroako Txapelketa Beste Iruñako Iñigo Garciak irabazi zuen (9:09.45), bere taldekide Iraitz Senar lakuntzarrari 8 segundo aterata (9:17.94). Zilarrezko domina ekarri zuen Senarrek.

Bestalde, emakumezkoen 3.000 metroko lasterketan Alicia Carrera gailendu zen (9:39.92). Leire Estarriaga 10. tokian sartu zen helmugara (11:01.42). Izaskun Beunza olaztiarrak ezin izan zuen proba despeditu.



ARTXIBOA, FOTOTRI

Iñaki Gallegori agur

TRIATLOIA Iñaki Gallego triatleta altsasuarra asteartean zendu zen, 44 urte zituela. Trigoi taldeko kide, 2017an Sakana Triatloi Taldera pasa zen eta talde laranjan osatu zuen bere ibilbidea. Besteak beste, 2017an Tuterako Ebroko Erronkan lehena izan zen PT55 mailan eta 2018an Arangurenen beteranoen PT55 mailan lehena izan zen, Nafarroako txapelduna.

0 Parrulo Ferrolen kontrako partida "gakoa" da Xotarendako

ARETO FUTBOLA Talde berdeak bihar jokatuko du goiko postuetatik ez aldentzeko ezinbestekoa den partida

Asteburuan 1. Mailako Areto Futbol Txapelketako 20. jardunaldia jokatuko da. Egun Palma Futsal da txapelketako liderra (37 puntu), 2 puntura Levante taldea duela (35 puntu) eta Osasuna Magna Xota 12. postuan dago (18 puntu).

Ligako titulua erabakitzeko Play-Offetan sailkatzeko lehen 8 talderen artean sailkatu beharra dago, eta postu horiei gerturatzeko puntuak bildu beharrean dago talde irurtzundarra, bai ala bai. Horregatik, larunbatean O Parrulo Ferrol taldearen kontra jokatuko duen partida partida "gakoa" da Imanol Arregik zuzentzen duen taldearendako eta talde berdeak mimoz prestatu du norgehiagoka. Partida larunbatean jokatuko da, 19:00etan, Ferrolko A Malata pabilioian, eta zuzenean ikusi ahalko da LaLigaSport TV telebista katean.

Ongi jokatzea ez da nahikoa

Aurreko astean Imanol Arregik argi eta garbi adierazi zuen "ongi jokatzearekin ez duela balio". Izan ere, talde irurtzundarrak ongi jokatzen du, gol aukerak sortzen ditu, baina kontrako atean asmatzea kosta egiten zaio. Azken partidetan, garaipena eskuetan izanda, azken unean ihes egin die garaipenak. Irabazi beharra dagoela argi du Imanol Arregik, are gehiago play offetarako sailkatu nahi badute, eta larunbateko partida erabakigarriarendako plantilla guztia eskura izango du entrenatzaile irurtzundarrak.

Aspil-Xota derbia jokatuko dela erabaki du epaileak, eta Aspiliek erabakia errekurrituko du

Aspil-Jumpers Ribera Navarrak eta Osasuna Magna Xotak ilbeltzaren 4an jokatu beharreko derbia, talde irurtzundarreko jokalaririk batek positibo eman eta gero epaileak atzeratzea ontzat eman zuena, jokatu beharko da. Hala erabaki du Espainiako Futbol Federazioko epaileak, Aspil Ribera Navarrak Osasuna Magnari partida galdutzat ematea egindako eskaerari erantzunez. Erriberako taldearen iritzi Xotak ez zuen bete COVID protokoloak antigeno testak egiteko data.

Federazioko epaileak Xotari "falta arina" leporatu dio, testak partida baino 35 ordu lehenago egiteagatik eta ez 48 ordu lehenago, araudiak jasotzen duen bezala, baina hori falta arina dela dio epaileak, "parte hartzaileen osasunerako ez zelako mehatxua izan" eta 150 euroko isuna jarri dio. Eta Aspil eta Osasuna Magnaren arteko partida jokatu beharko dela erabaki du.

Tuterako taldeak oso gaizki hartu du erabakia eta errekurrituko duela adierazi du. Halaber, oso hitz gogorak izan ditu Osasuna Magnarendako eta Espainiako Futbol Federaziorako. Lehenari testak epez kanpo egitea leporatzen dio eta "pandemiak sortutako egoera larriari emaitza ateratzea", eta bigarrenari "auzian beste aldera begiratzea. Horregatik, "guztiz umiliatuta" sentitzen direla adierazi dute.

Dani Saldise, 1. Mailako Areto Futboleko pitxitxia

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Xota utzi eta aurten Inter Movistar taldean ari den pibot irurtzundarra 2020/2021 Ligako golegileen sailkapenaren buruan dago, jokatutako 15 partidatan 14 gol sartu eta gero. Interren "gozatzen" ari dela aitortu du

Dani Saldise Martinikorena irurtzundarra Xota taldean trebatu zen eta Osasuna Magnan debutatu zuen. Imanol Arregiren ezinbesteko jokalarietako bat izan zen iaz taldea utzi zuenera arte, eta aurten, 2020/2021 denboraldian, Inter Movistar talde madrildarrean ari da, pibot. Ligako 15 partida jokatu ditu Inter Movistarrek, 3 jardunaldi atzeratu behar izan baititu, eta 15 partida horietatik 8 partida irabazi ditu, 4 berdindu eta eta 3 galdu. 15 partidak horiek jokatu ditu Dani Saldisek eta 14 gol sartu ditu irurtzundarrak. Horrela, golegileen txapelketako buruan dago irurtzundarra.

Dani Saldisek GUAIXEN egindako elkarrizketan azaldu zuen bezala, "burua tente noa Xotatik, talde honen alde guztia eman dudalako. Emandako moduberean jaso dut". 17 urte zituela debutatu zuen Xotako talde nagusian Imanol Arregiren aginduetara. "Gogotsu nengoen, baina, aldi berean, oso urduri, eta bihotza taupaka nuela, orduko 200 pultsazioetara, zinez" gogoratzen du. Inter Movistar talde ahaltsuaren eskaintza iritsi zitzaion, eta aukerari ez zion ihes egiten utzi. "Nik beti jokalaririk moduan hazten jarraitu nahi izan dut, eta horretarako aukera ezin ho-



Dani Saldise oso gustura dago Madrilen eta egungo pitxitxia da. INTER MOVISTAR

bea iritsi zait, une egokian. Uste dut aldaketa egiteko une perfektua dela hau: 25 urte beteko ditut, adin egokia, jokalaririk moduan heldutasun handia dut eta betiko klubetik irten eta beste erronka batzuei ekiteko gai ikusten dut neure burua" azaldu zuen orduan.

Ekarpene handia

Eta badirudi apustua ongi atera zaiola, irurtzundarra gustura baitago Madrildo etapa zirrarragarrian. Jokalaririk gisa Inter Movistarren "gozatzen" ari dela

aitortu du Irurtzungo pibotak, eta asko ari da jokatzen eta baita golak sartzen ere, bera baita golegile nagusia. Pozik dago Saldise, "taldeari ekarpen handia" egiten diola jabetu baita eta bere esker ona azaldu dio Inter Movistarri "besoak zabalik" hartu dutelako.

Dani Saldise Osasuna Magna Xotaren kontra abenduan lehiatu zen, eta 4 ea 0 gailendu zen Inter Movistar. Saldisek bi gol sartu zituen eta partida "arraroa" egin zitzaioala aitortu du, "lagunen kontra" jokatu zuelako.

Profesionalen bere burua nahiko ongi ikusi du Etxeberriak

TXIRRINDULARITZA Josu Etxeberria iturmendiarrak La Marseillesa Sari Nagusian mustu zuen kategoria berria

Josu Etxeberria txirrindulari iturmendiarrak igandean debutatu zuen txirrindulari profesional gisa, La Marseillesa Sari Nagusian (171 km), Rural Kutxa-Seguros RGA taldearekin. Lasterketa "oso zorrotza" irudit

zitzaion Etxeberriari, eta helmugan nabarmendu zuenez, "dudan guztia eman dut, hustuta bukatu dut". Halaber, profesionalen mailan "tentsio askoz ere gehiago-rekin" lehiatzen dela konturatu zela gaineratu zuen, eta abiadu-

ra beste bat dela, "askoz ere handiagoa". Dena den, "lehendabiziko lasterketa izateko bere burua nahiko ongi ikusi duela adierazi zuen. "Oso pozik nago lasterketan aritu izanagatik" azpimarratu du.

La Peluson izena ematea zabalik Irurtzungo II. La Peluso Zikloturista Martxa maiatzaren 8an izanen dela azaldu dute antolatzaileek eta izena ematea zabalik dagoela lapeluso.com eta rockthesport.com webguneetan.



La Marseillesa Sari Nagusian zuen guztia eman zuela azaldu du Etxeberriak. RURAL KUTXA

CBASK Jatorman, aurrera!

SASKIBALOIA CBASK Jatorman Altsasuko saskibaloia taldea duela 3 urte igo zen Autonomia Arteko 2. mailara, eta mailari ia ezin eutsi egotetik orain arteko denboraldirik onena egitera pasa da, Iosu Mendiola jokalaria ohi gaztearen esanetara

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
Altsasuko CBASK saskibaloia taldeak ibilbide luzea darama. Makina bat haur eta gazte treratu dira eta aritzen dira bertan, neskak eta mutilak, txiki txikienetatik hasita talde gorenera arte, CBASK Jatorman. Duela hiru urte balentria lortu zuen CBASK Jatormanek: Nafarroako senior mailatik Gizonezkoen Autonomia Arteko 2. mailara igotzea. Lehen bi denboraldietan mailari eusteko gogor borrokatu behar izan zuen talde altsasuarrrak; baina aurtan, aldiz, Iosu Mendiola Marañon jokalaria ohi arbizuarrak hartu zuen taldearen ardura, eta goiko postuetan dago.

Mendiola: jokalaria izatetik entrenatzaile izatera

Iosu Mendiola Marañonek saskibaloia darama zainetan. "Aurreko urtera arte CBASK Jatormaneko jokalaria izan nintzen. Arazo fisiko batengatik -hezur batean higadura dut- ezin dut jokalaria izaten jarraitu eta jokalariekin adostuta, entrenatzaile postuan jartzea erabaki genuen. Eta hor gabiltza, lehenengo urtez talde nagusiko entrenatzaile gisa. Zortea izan dut, entrenatzea gustuko izango ez banu mundu honetatik kanpo geratuko bainintzen. Horrela, behintzat, saskibaloian jarraitzeko aukera dut" dio Iosuk.

Arbizuarrak urte dezente zeramatzan kategoria txikiko taldeak entrenatzen. Aurtan 13 eta 14 urteko emakumezkoen taldea ere entrenatzen du, baina talde nagusia entrenatzea proposatu ziotenean "ez zuela zalantzarik izan" aitortu du. Entrenatzaile lana ez doakio batere gaizki, CBASK Jatorman sekulako denboraldia egiten ari delako, orain arteko onena. "Duela hiru urte

igo ginen Autonomia Arteko 2. mailara. Aurreko bi urteetan nahiko eskas ibili ginen, mailaz jaisteko arriskuarekin. Lehen denboraldian banago 5 partida inguru irabazi genituela, eta iaz uste dut gutxiago izan zirela, koronabirusarengatik martxoan guztia gelditu zenera arte. Aurtan, egia esan, zorte gehiago izaten ari gara edo gauzak nahiko ongi ateratzen ari zaizkigu. Ligako lehendabiziko 8 partidak irabazi genituen eta nahiz eta azken bi partidetan ezin izan garen gailendu, oso kontentu gaude, sentsazio onekin" nabarmendu du Iosu Mendiolak.

Jokatzen ari diren saskibaloia liga gutxienean artean dago Gizonezkoen Autonomia Arteko 2. maila, bertan Nafarroako taldeak eta Errioxakoak ari direlako eta Espainiako Saskibaloia Federazioak arautzen duelako. "Espainiako federazioko txapelketak dira jokatzen ari diren bakarrak. Liga jokatzen ari gara, eta dagoen egoera ikusita, ez da gutxi. Zorteko gara. Une honetan garrantzitsuena jokatu ahal izatea da, lehiaketa bertan bera ez geratzea" azaldu du Iosuk.

Harrobitik sortutako taldea, %100 sakandarra

CBASK Jatorman Altsasu Saskibaloia Klubetik sortutako taldea da erabat, harrobikoa. Jokalaria guztiak sakandarrak dira, gehienak altsasuarrrak, arbizuar bat, etxarriar bat eta iturmendi bat izan ezik. Eta guztiek seku-

"SAKANAKO JENDEAREKIN JOKATZEA, HORI OSO ARGI DUGU" IOSU MENDIOLA

lako harremana dute, lagun talde bat dira. "Azken 10-20 urteetan, jokatzearekin eta ongi pasatzearekin konformatzen ziren, baina azken lauzpabost urteetan ahalik eta hobekien eta gorenaren jokatze konpromiso handiagora hartu dugun taldean bilakatu gara. Oso giro ona dugu eta ongi pasatzen dugu. Hori da gure lehen helburua. Argi dugu inor ez dela honetaz biziko, baina gauzak ahalik eta hobekien egiteko konpromisoa hartu dugu, eta nik uste dut maila badagoela erakusten ari garela" gaineratu du entrenatzaile arbizuarrak.

Euren nahia Sakanako jendearekin jokatzea da, eta hori oso argi dute. "Duela urte asko kluba Iruñeko jendea ekartzen hasi zen, baina guk argi dugu ez dugula bide horretatik joan nahi. Guk dugun ideia da Sakanako jendearekin jokatzea. Saskibaloian hobetu nahi izanagatik edo emaitza gehiago lortzeagatik ez dugu duguna galdu behar. Laguntasun eta giro on horri Sakanako jokalaria guztiak hemen aritzea gehituko bagenion... sekulakoa litzateke" ez du zalantzarik Iosuk.

Izan ere, beste talde batzuetan aritzen diren jokalaria sakandar oso onak daude, Ardoi taldean bikain dabilen Andres Zabaleta etxarrendarra, Jose Javier Zabaletaren anaia dena; Irlandako lehen mailan profesionala den Iñigo Zabalo edo CBASK-etik Iruñeko talde batera joan den Jorge Misiego, esaterako. "Guztiak elkartuko bagina ziur nago talde oso polita osatuko genukeela eta maila bat edo bi maila gorago jokatzea lortuko genukeela. Orain Iñigo Zabalo gurekin dabil eta nabaritzen da" dio Mendiola entrenatzaileak.



Autonomia Arteko 2. mailan dabilen CBASK Jatorman talde altsasuarreko jokalaria, eskuinean, g

Iñigo Zabalo CBASK-en

Iñigo Zabalo Irlandan jokatzen duen aurtan, Irlandako Saskibaloia Ligako 1. mailan. Baina pandemiagatik bertan konfinatuta daude eta Irlandako liga bertan behera utzi zuten. "Iñigo Altsasura itzuli eta gurekin jokatzen hasi zen, eta, jakina, bere eragina nabaritu dugu. Lehenengo 4 partidetan ez zen gurekin aritu, orduan Irlandan zegoelako, beranduago hasi zen. Jokalaria profesionala da, eta normala da taldeari plus bat ematea" azaldu du Mendiolak.

CBASK-en sekretua, lagunarteko harremana

Talde polita du CBASK-ek. "Hiru jokalaria batera lesionatuta egon izan dira, baina, egia esan, beti egon da jendea jokatze moduan. Iñigo Irlandatik etorri izanagatik zortea izan dugu, eta badago ere Ingalaterrara lanera joan behar

"SAKANDAR GUZTIAK ELKARTUKO BAGINA TALDE BIKAINA OSATUKO GENUKE" IOSU MENDIOLA

zen beste jokalaria bat, baina azkenean pandemiagatik hemen gelditu behar izan duena. Jokalaria kopuruz ongi gabiltza" dio entrenatzaileak. Lagun talde bat osatzen dute eta hori da taldeak duen plusa. "Galdetuko bazenit zein den gure arrakastaren sekretuetako bat, nik uste dut hori dela, gure lagunarteko harremana. Hori galduko bagenu, beste guztia askoz ere zailagoa izanen litzateke. Ez genuke entrenatze ko eta lana hobeto egiteko horrenbesteko gogorik izango, eta hori kantxan ere nabaritutako litzateke. Gu beti entrenatzeko gogotsu gaude, ilusioa dugu, eta horrela jarraituz gero ziurrenik hobetzeko tartea izango dugula. Hori da gure sekretua. Bestela batek utziko zuen, besteak huts egingo zuen, gainontzekoek ez zuten hobetuko..." dio teknikariak.

Taldekiek ikasten dute edo lana egiten dute, eta sarritan zaila izaten da entrenamenduak eta beste uztartzea, baina lortzen dute. "Ez gara profesional talde bat, baina moldatzen gara. Jokalariek duten konpromisoarekin oso pozik nago. Saskibaloia lehenesteko gogoak ditugu eta pozik gaude" gaineratu du.



Iosu Mendiola Marañon egungo entrenatzaile eta jokalaria ohia dutela. CBASK

Gehienetan hiri handietako kirol taldeek baliabide gehiago izaten dituzte, baina Iruñeko taldeekin eta Errioxakoekin lehiatzeko moduan daudela uste du CBASK-eko entrenatzaileak. "Baliabide materialetan uste dut nahiko alderatuta gaudela, Altsasun instalazio bikainak ditugulako, baina hirietako taldeek jokalaria askoz ere gehiago izaten dituzte, eta taldeak sortzea errazagoa izaten dute. Altsasun talde bat bakarrik dagoenez, talde hori goian egotea zailagoa da, baina hor gaudela erakusten ari gara, eurekin nor baino nor lehiatu ahal garela. Ez dakit hau gure maila den, gorago jokatu dezakegun edo ez garen inoiz gehiago igoko, baina lehiatu dezakegula erakusten ari gara" azpimarratu du entrenatzaileak.

Liga zaila dute aurretik

2020/2021 denboraldia ongi hasi du CBASK-ek, baina jakitun dira aurretik liga zaila dutela. Lider izan dira, baina asteburuan Berriozarko Humiclimaren kontra 70 eta 77 galdu eta gero, egun sailkapenean bigarrenak dira CBASK Jatormanekoak (18 puntu), San Cernin liderrarekin

puntutara berdinduta. "Badakigu hasiera on batek ez duela esan nahi goian bukatu behar dugunik. Agian aurten ez gara jaitsiko, gauzak izugarri okertu beharko lirerateke horretarako, baina ez dakigu goian eutsiko dugun ala ez. Saiatuko gara, jakina, baina aurtengo denboraldia ere nola bukatuko den ez dakigunez..." dio entrenatzaileak.

Izan ere COVID19ak guztia baldintzatzen du oraindik, eta liga bera airean dago. "Iaz liga martxoan bukatu zen eta ez ziren ez igoerarik ez jaitsierarik egon. Aurten zer gertatuko den ez dakigu. Orain arte talde nafarren arteko partidak jokatu ahal izan ditugu, eta mugak zabaltzeko esperoan gaude, Errioxako taldeen kontrako partidak jokatu ahal izateko. Errioxako taldeek ia ez dute jokatzeko aukerarik izan, han konfinamendu perimetrala ez baita soilik herrialdekoa,

**"ARRAKASTAREN
SEKRETUETAKO BAT
GURE LAGUNARTEKO
HARREMANA DA"
IOSU MENDIOLA**

herrien artekoa baizik. Hortaz ezin izan dituzte euren arteko partidak jokatu. Liga bera airean dago. Ikusiko dugu zer gertatzen den, azken uneko erabakiak izanen dira" aipatu du Iosuk.

Pandemiagatik ez dago arerioen partidak ikustera joateko aukerarik, eta horregatik gainontzeko taldeak nola dauden jakitea zaila dela aitortu du entrenatzaileak. Eta euren mailako partidak normalean ez direnez grabatzen, ezin dira ikusi. "Aurten arerioak nola dauden jakitea zaila da. Gure partidaren bat grabatuta dugu eta zer egin dugun ongi eta zer gaizki aztertzen dugu, baina bideo gutxi ditugu aztertzeko, nahi baino gutxiago" dio.

CBASKen osasun ona

Altsasuko CBASK Saskibaloit Taldean 100 saskibaloit jokalaria baino gehiago trebatzen dira kategoria guztiak kontuan hartuta. Iosu Mendiolaren ustez, azkenaldian gaztetxo gehiago animatu dira taldean sartzen. "Gu mailaz igo izanak Sakanan izan zuen oihartzuna nabaritu dela uste dut. Eta, gero, CBASK-en trebatu zen Iñigo Zabalo gure artean ikusteak eta Gernika

Lointekeko kapitaina den Naiara Diez altsasuarra maila gorenean ikusteak ere eragina du, zalantzarik gabe" uste du entrenatzaileak. Neskek pisu asko dute CBASK-en. "Nesken taldea entrenatzen dut eta orduak eta orduak sartzen dituzte kiroldegian. Esango nuke mutilei baino gehiago gustatzen zaiela saskibaloia, orokorrean" dio, irribarrez.

Pandemiaren egoerak uzten badu, otsailaren 12tik aurrera kirol txapelketak hasiko dira Nafarroan, saskibaloikoak barne. CBASK-eko talde guztiak entrenatzen ari dira, eta txapelketetan jokatzeko hasteko irrikaz daudela adierazi digu Mendiolak. "Nafarroako ligak hasten badira, seniorren taldetik jokalaria igo ahal izango genituzke gure taldera; hori beste aukera bat da guretzat. Izan ere, goiko kategorian dagoen talde batek oinarria behar du, kategoria baxuago batean dagoen talde bat. Duela hiru urte mailaz igo ginenean, senior mailako talde sortu behar izan genuen CBASK-en, ia hutsetik, gazte mailako jokalaria igoz. Ea aurten zer moduz doakien" azaldu du arbizuarrak.

Otsailaren 13an San Ignacio izango dute aurkari Zelandin, 100 zalerendako tokiarekin

Otsaileko lau partidetan Errioxako taldeen kontra aritzea zegoen CBASK-i, baina momentuz ezin dira jokatu. Gogor entrenatzea, ez dute besterik. Baina Iruñeko San Ignacio taldearen kontrako partida aurreratzea lortu dute eta otsailaren 13an, 18:00etan jokatu dute, Zelandin. 100 ikuslek jarraitu ahalko dute partida, eta oso animatuta daude CBASK-ekoak. "Ea zaleak animatzen diren. Kiroldegira zale asko doaz, asko animatzen gaituzte eta oso giro polita sortzen da" dio.

Iosuri Unibertsitatean Ekonomia ikasketak bukatzeko gutxi falta zaio, aldi berean lan egiten du eta CBASK-eko talde nagusiko eta 13-14 urteko nesken entrenamenduekin oso lanpetuta dago. Hala ere, lehen mailako entre-

**"LIGA ZAILA DA,
BAINA LEHIATU
DEZAKEGULA
ERAKUSTEN ARI GARA"
IOSU MENDIOLA**

ntzaile titulua izateko ikastaroa despeditzeko tartea atera nahiko luke. "Hasierako entrenatzaile titulua aspaldi atera nuen, haur txikiak entrenatzeko, baina lehen mailakoa lortu nahiko nuke" esaten du. Entrenatzea lanbide bihurtuko ote lukeen galdetuta, "aztertuko lukeela" erantzuten du. "Hemen zaila litzateke, maila asko dagoelako, baina kanpotik proposamen bat iritsiko balitzait, aztertuko nuke. Ziur gustatuko litzaidakeela, baina ez dakit ausartuko ote nintzatekeen. Hori bai, gutxienez aztertuko nuke" berresten du.

Bitartean, Iosu Mendiola gustura dabil CBASK-en eta bere bizitzako taldea, Baskonia, jarraitzen. "Baskoniako zalea naiz betidanik eta sarritan joaten naiz partidak ikustera. Gasteizen saskibaloia erlijio bat da" ez du zalantzarik.



CBASK Jatorman 2020-2021

- **6:** Ander Hormeño Ziordia
- **7:** Ander Gabirondo Vazquez
- **8:** Igor Martinez Lumbreras
- **9:** Iñigo Zabalo Oiarbide
- **10:** Jon Otermin Benito
- **11:** Aitor Calleiras San Roman
- **13:** Aimar Azpiroz Ereño
- **14:** Adrian Senar Oyarbide
- **15:** Unax Ijuria Artieda
- **16:** Iñaki Herrero Larraza
- **18:** Pello Iraola Rodriguez
- **19:** Unai Flores Palacios
- **Entrenatzailea:** Iosu Mendiola Marañon

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 5

ALTSASU Gazte agenda: **Gonbidatuak izatetik, protagonistak izatera. Neska kintoak Santa Ageda festan 1963-2013 dokumentalaren proiektzioa.** 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.

20:00etan, plazan.

OLAZTI Irakurketa kluba Sara Mesa idazlearen *Cara de pan* liburuari buruz ariko da. 20:00etan, liburategian.

LARUNBATA 6

ALTSASU Barranka Txirrindula Taldeko talde mistoak 40-50 km-tako ibilbidea egingen du. 09:00etan, Zumalakarregi plazan.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Salvaje gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 5: 19:00
Igandea 7: 19:30

La última gran estafa gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 11: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

El profesor de persa zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 11: 19:00

ETXARRI ARANATZ *Babian zaude!* Familiarteko musika ikuskizuna. 3 euro. 17:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda: **Atzapar Rock** taldearen kontzertua. 20:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

IGANDEA 7

ARBIZU Zuhaitz eguna: 2020an jaio eta errolatuko haurrek gonbidapen zuzena jasoko dute. Erroldatu ez baina interesa dutenek aurrez abisatu. 12:00etan, plazan.

ALTSASU Agure herrietan osasungintza bermatu: **Altsasu, Olazti eta Ziardiako osasun eremuak osasun etxeetan pairatzen duten egoera larria salatzen elkarretaratzea.** EH Bilduk deituta. 12:00etan, udaletxearen aurrean.

OLAZTI *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* dokumentalaren proiektzioa. 19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.



PEOPLE ART FACTORY

ALTSASU *Emakume malgaxearen indarra* erakusketa birtuala. Abenduaren 29tik martxoaren 29ra. *People art factory* webgunean, <https://labur.eus/EmaMalgaxe>.



ALTSASU *#AltsasukoakAske Guztien artean egin dugu!* Testigantza erakusketa. Urtarrilaren 19tik otsailaren 7ra. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna hasi aurretik eta igandetan 16:00etatik 20:30era. Iortia kultur gunean.



OLAZTI Intsumisioaren astea. Joxe Lacalle argazkilariaren argazkiak eta Sakanako Talde Antimilitaristaren dokumentazioa. Otsailaren 1etik 12ra. Liburutegian.

ASTELEHENA 8

ALTSASU Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. 12:00etan, udaletxearen aurrean.

ALTSASU *Ombuaren itzala* film egitasmoaren aurkezpena. Hizlaria: Patxi Bisquert. 18:30ean, Iortia kultur gunean.

ASTEARTEA 9

ALTSASU *Homo amak* eta *Tras la piel* film laburren emanaldia eta solasaldia, eta Kattalingune, Naizen eta Hormak elkarten aurkezpena. 18:00etan, Iortia kultur gunean.


Bazkide Zoz keta

1. SARIA

ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua
LACTURALE: Esneki lotea
GAZTEZULO: 3 hilabetez doan

2. eta 3. SARIAK

ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua
LACTURALE: Esneki lotea



DE KOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALDU

Bi garaje plaza salgai Etxarri Aranatzan, oso prezio onean. Deitu 661 186 576.

LANA/NEGGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Sakanako Mankomunitateak hondakin zerbitzuaren beharrak betetzeko lan polita osatu nahi du: Peoi gidaria, peoia, pala gidaria eta antzeko lanak egiteko pertsonak bilatu nahi ditu. Oposizio lehiaketa bat egingo da; batetik merezimenduak ebaluatuko dira eta bestetik test motako galdera zerrenda eta suposizio teoriko praktikoa bat egin beharko dira. Aurkezteko bideak: Mankomunitateko bulegoetan (Uriz kalea 32, Lakuntza), erakundearen egoitza elektronikoen bidez (<https://sedelectronica.sakana-mank.com/es/index.aspx>) edo posta ziurtatuaren bidez. Aurkezteko epea 2021eko otsailaren 8an, 14:00etan, amaituko da.

LEHIAKETA

Liberoamerika argitaletxearen literatura lehiaketa: Idalze gazteen lanak argitaratzeko xedearekin sortu dute deialdia. 30 urtetik beherako pertsonak parte har dezakete, edozein delarik haien nazionalitatea, jatorria edo bizilekua. La-

nek gutxienez 40 eta gehienez 80 orrialde izango dute, eta Times New Roman 12 letra motan tarte bikoitzean idatzita egongo dira. Informazio osoa <https://liberoamerica.com/idalze-gazteen-literatur-lanak-argitaratzeko-deialdia/web/orrian>.

OHARRAK

Odol emateak Irurtzunen: Otsailaren 11n, 16:45etatik 20:30tara, www.adona.es/eu.

Lakuntzako Gazte Asanbladaren zozketako zenbaki sarituak: 1. saria 080 (ordezkoa 591), 2. saria 436 (ordezkoa 393) eta 3. saria 196 (ordezkoa 600). Zenbaki saridun bat izanez gero idatzi haren sare sozialetara edo lakuntzagogazteasanblada@gmail.com helbidera.

Mikel Arregiri buruzko liburua honako tokietan erosi daiteke: Lakuntzan Ogi berrin, Aliproxen eta Estankoa; Etxarri Aranatzan Kaxeta liburu dendan eta Altsasun Arkatz liburu dendan. 15 eurotan dago salgai.

Gazte Agora: Izen hori duen ekimen horren baitan Eusko Ikaskuntzak, Euskadiko (EGK) eta Nafarroako Gazte Kontseiluek (NGK) bat egin dute. Parte hartze foroaren bidez "Gazteen aniztasuna eta gobernantza-eredu berriak: Mugaz gaindiko gazteen lankidetzarako oinarriak"

txostena egin dute (<https://labur.eus/ITFrV>). Apirilean gazteriarren inguruko Jardunbide Egokien Foroa egingen dute eta hartarako proposamenak jasotzeko epea ireki dute, otsailaren 19ra arte; elkarte, kolektibo eta erakundearen proposamenak egin ditzakete Eusko Ikaskuntzaren webgunearren bitartez (<https://labur.eus/6xsya>).

Intxostiapuntako ordutegiak: Gaztegunea asteleheneretik ostegunera, igande eta jaiegunean 17:00etatik 21:00etara, ostiral eta larunbatean 17:00etatik 22:00etara, ekintza berezietan 17:00etatik 01:00etara. Informazio gunea asteleheneretik ostiralera 07:30tik 15:00tara eta asteazkenetan 07:30tik 12:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Tfnoak 948 564 785 / 608 617 778, intxostiapunta@altsasu.net.

OPATUTAKOAK

Harzabal dermioan 6 giltza opatu dira: Mosketoi gris batean bilduta. Etxarri Aranazko udaltxean daude.

Altsasuko alde zaharrean 3 giltza opatu dira: Mosketoi eta giltzatak hori kolore batean bilduta. Altsasuko udaltxean daude.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus


JAIOTZAK

- **Maren Irigoien Maldonado**, ilbeltzaren 20an Urdiainen
- **Izaro Alegria Larrea**, ilbeltzaren 23an Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 5



Zerua oso hodeitsu egongo da. Euri txikia egongo du, zenbait lekutan ertaina. Trumoi ekaitzak izan daitezke.

Igandea, 7



Eguraldiak antzeko jarraituko du, baina prezipitazio gutxiago izango da gurean. Elur mailak gorantza egongo du egunak aurrera joan ahala.

Larunbata, 6



Temperatura minimoek behera egingo dute eta ondorioz elur maila 1.000 metro ingurura jaitsiko da. Eurria izango da protagonista.

Astelehena, 8



Eguraldi iluna izanen da astelehenean ere, nahiz eta temperatura epelagoak izan. Haizea zakarragoa izango da egunean zehar.

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:
24,20 euro
948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:
14,52 euro
948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIA@GUAIXE.EUSWWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELA

Iñaki Gallego Rosado

Gozamena izan da zu ezagutzea eta zure taldekide izatea
Besarkada bat familiarendako

Sakana Triatloi taldea eta Dantzaleku atletismo kluba

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo.eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Erika Elizari 'Zendabalitz' eleberraren idazlea.

'Zendabalitz'-era hegaldia

Urtero bezala, Itsasi euskaltegiak eta Sakanako Mankomunitateak idazle batekin solasaldia antolatu dute. Aurtengoa berezia izan da euskaltegiak 25 urte beteko dituelako. Erika Elizari izan da gonbidatua

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU
Euskaltegiko ikasleek *Zendabalitz* Erika Elizariaren eleberria irakurri dute azken asteetan. Beste batzuei liburu "kontatu diete" Idoia Artieda euskaltegiko irakasleak aitortu duen bezala. Bera izan zen Erika Elizariaren solasaldiaren gidaria. AEK euskaltegiak eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak urtero idazle baten solasaldia antolatzen du, eta aurtun XXI. Igartza Sarietako irabazlea ekarri dute. Gainera, bi aldiz berezia izan da emanaldia; pandemia egoera dela eta edukiera mugatua izan da eta entzuleak maskara jantzita egon dira, eta, bestetik, euskaltegiaren 25. urteurrenaren baitan antolatu dute ekimena.

Erika Elizari Hernanin bizi da eta asteazkenean Altsasuko Iortia kultur gunean egon zen bere lehenengo eleberriaz hitz egiten: *Zendabalitz*. Hegazkinbateangertatzen da eta Elene, Gabriele, Paule, Xabier, Enara, Malox, Sukaina eta abar dira protagonistak. Euskaltegiko klaseetan hegazkinaren planoak egindutuzte istorioa eta pertsonaiak kokatzeko, eta Elizarik azaldu duenez, Xabier Mendiguren editoreak irakurlea kokatzeko "marrazki" bat jartzea proposatu zuen. "Azkenean ez jartzea erabaki genuen eta jolas moduan planteatu

genuen. Irakurlea horretara behartu nahi izan genuen".

"Nik hitz egin nahi nuen gure buruaren barruan dugun kaosari buruz". Horretarako, pertsonaia desberdinak behar zituen idazleak. "Baina aldi berean kontakizun bakarra egin nahi nuen". Kronika bat idaztea erabaki zuen, beraz, eta guztien artean elkar egiteko toki itxi bat eta denbora mugatu bat behar zituen: "Hegazkinak ematen zidan behar nuen guztia. Gainera, oso toki berezia da; tentsioa sortzeko oso leku aproposa". Gauza batek bestera eraman zuela azaldu du Elizarik, "ongi zetorkidan barruko ahots hori ateratzeko".

Lehenengo eleberria

Elizarik ikus-entzunezko komunikazioa ikasi zuen eta ETBko Teknopolis saioan lan egiten du. Erredaktorea da. Bere lehenengo lana da. Igartza Saria irabazi zuen 2018an. Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak elkarrekin antolatzen duten sari banaketa da eta idazle berriak bultzatzea du helburu. "Sarietara aurkezteko hamabost orriko lagin bat bidali behar dituzu. Bertan gaia, pertsonaiak, zer bilatzen duzun eta abar azaldu behar duzu. Askea da". Txosten hori saritzen dutela esan du

idazleak: "Gero proiektua bukatzeko eta argitaratzeko aukera ematen dizute".

Baina gero orri horiek osatu behar direla aitortu du. "Niri gertatu zitzaidan konfiantza hartu nuela hamabost orri horiekin, oso onak iruditu zitzaizkidan, baina hortik aurrera zegoen guztiak zalantza sortzen zizkidan". Presioa sentitu zuela esan du, baina aldi berean "oso ondo" pasatu zuela idazten. Gainera, txostena egin behar denez "ideiak nahiko argi" izateak ekartzen duela azaldu du. Horregatik ere urtebete "nahikoa" dela azaldu du.

Liburu irakurri ondoren, euskaltegiko ikasleek hainbat galdera argitu nahi zituzten. Esaterako, zergatik jarri zuen izenburu hori. "Hasiara batean, proiektua garatzen hasi nintzenez, iraganak, orainak eta etorkizunak presentzia handia zuten. Pisu handia izango zutela uste nuen". Pertsonaien pentsamendu asko iraganari eta etorkizunari lotutakoak izango zirela uste zuen idazleak. "Orain hegazkinean bizitzen dute". Beraz, proiektua hasi behar zuenean Zen, da eta balitz hitzekin berri bat sortu zuen: *Zendabalitz*. "Niretako unibertso bat bihurtu da. Badiardi leku bat dela". Izenburuari "kariñoa" hartu zion, tematu zen eta, azkenean, onartu zidaten.

"Normalean proiektua hasten denetik publikatu arte izenburua aldatzen da hasierako ideia horiek aldatzen direlako".

Nobela korala

"Pertsonaia denek dute zerbait asmatutakotik eta zati handi bat ezagutzen ditudan pertsonetatik", erantzun zuen Elizarik ikasleek egindako pertsonaien inguruko galdera. Azaldu duenez, edozein egoeratan dagoela jarrera bat ikusten duenean apuntatu egiten du, eta ondoren, idazten ari zela apuntatutako jarrera horiek pertsonaien artean nahastu eta banatu zituen. "Horrela sortu dira". Bere izaeratik eta bere ingurukoe-tatik ere zerbait izango dutela esan du, "suposatzen dut baten batek bere burua antzemango zuela". Gizartearekiko "identifikazio puntuak" ematen saiatu da.

Hasieran eta bukaeran formula berdina erabili du idazleak. "Pentsatzen duzunarekin eta gero gertatzen denarekin desberdintasun hori adierazi nahi nuen. Kontraste hori, eta forma borobila eman nahi nion ere". Liburu ia osotasunean lehenengo eta bigarren pertsonan idatzita dago, epilogoak, aldiz, hirugarren pertsonan: "Proiektuan nire bereizgarri bat bezala saldu nuen lehenengo eta bigarren pertsonan ariko nintzela nork bere buruarekin hitz egiteko zentzua zuelako horrela aritzea. Baina niretzako kartzela bihurtu zen. Ez nuen adierazteko modurik". Honen harira, autokritika ere egin du: "Ez da errealia, ez genuela horrela hitz egingo. Baina nik nahi nuen kontatzeko derrigorrez horrela kontatu behar nuen".



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA

Top 3 ene heroi kuttunenak

Bazen garai bat non komikiak irakurtzeak ematen zidan zirrara ezin zuen ezerk berdindu. A ze poz handia komiki dendatik komiki berriei etxera bueltatzea. Fresko freskoak. Inprentatik atera berriak. Liburu berriaren usain hordigarriak ez du parekorik, ez gaur ez bihar. Irakurtzeko egarriak jota, sofán patxadaz postura hartu eta komikietan murgiltzera noanean nire heroi kuttun berria datorkit burura: komiki saltzailea. Inoiz ezagutu dudana tiporik jatorrena. Jakintsua da eta aholkuak ematen ditu zer irakurri zalantza nagoanean. Azken finean... hainbat eta hainbat komiki irakurri ditu, munduko guztiak ditu harrek eskura!

Denbora pasa zen eta gauzak ez ziren aldatu. Ene egarriak okerrera egin zuen, baina sendagaia eskasa zen. Gutxi gorabehera hilabetean behin besterik bisitatu nezakeen ene heroi. Itxaropena galdua nuenean ezagutu nuen berebiziko heroi (eta orduz gero betirako ene heroi kuttunena izango dena): liburutegiko liburuzaina.

Heroi hau betidanik izan zena. Aurretik nuen ezaguna, baina ez nuen inoiz erreparatu, ezta haren boterea ezagutu. "Tori, hilabete bat daukazu komikiak bueltatzeko" dio heroiak. "Lasai, makina. Bi aste barru, asko jota, bueltan izango naiz" pentsatzen dut nik komikiak eskuan hartuta.

Denbora asko pasa da eta gaur egun ene heroiak oso zaurituta daude. Garagardo izena duen biruz ziztrin batek kalte handia egin die. Egarrria, ordea, ez da baretu. Itxaropena akatuta zegoenean, azken heroiaren laguntza aurkitu nuen: Internet foroetako komikizalea. Heroia baino, anti-heroia dela esan genezake. Beti doa bere kontura eta kaotikoa da. Jende askok ez dio errespeturik partxe beltza eta egurrezko hanka daramalako beti soinean. Hala eta guztiz ere, haren altxorak ez dauka mugarik. Ongi bilatuz gero, edozein komiki aurkitu dezakezu bertan. Batez ere, bilatzen duzuna "manga" baldin bada.

Noizbait egarri bazara, ez izan beldurrik!! Beti egonen da heroi bat zu laguntzeko prest!



Pello Reparaz eta Castillo Suarez Itsesi euskaltegiak antolatutako solasaldian.

Musika begietatik ere sar daiteke

AEK-ko Itsesi euskaltegiak 25 urte betetzen ditu aurten, eta ospatzen hasteko Pello Reparaz solasaldia antolatu zuen Sakanako Mankomunitatearekin eta Altsasuko Udalarekin batera

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Pello Reparazek Iortia kultur guneko mikrofonoa hartu zuen, baina ez zen abesteko izan. Itse- si euskaltegiak, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eta Altsasuko Udalak antolatuta musikariaren ibilbidearen inguruko solasaldia antolatu zuten, AEK-ko euskaltegiaren 25. urteurrenaren harira. Castillo Suarez euskara teknikariak eta idazleak zeremoniari izan zen, eta Reparazekin elkarrizketa interesgarria eduki zuen. "Plazera da halako in- iziatibetan parte hartzea". Izan ere, egoera kontuan hartuta, Iortia kultur guneko areto nagusiaren edukiera erdira zegoen, eta, beraz, lehenengo galdera derrihorrezkoa zen: "Nola bizi- zten ari zara pandemia?".

Pandemia hasi aurretik Pello Reparazek proiektu berri bat

hasi berria zuen: Zetak. "Pan- demiak sortzaile bezala harra- patu nau oso momentu onean. Gogo handiz eta ilusio handiz". Hori guztia lan taldearekin kon- partitzen zuen eta "buelta emate- a" lortu zuten. "Jon Maiak esango zuen bezala txarrenari onena atera diogu". Hortaz, Ze- tak proiektua oso aktiboa egon da. "Ni pertsonalki oso aktibo egon naiz, eta terapeutikoa izan dela uste dut".

Proiektua

Zetak diziplina anitzeko proiektu artistiko bat bezala deskriba-

"PANDEMIAK SORTZAILE BEZALA OSO MOMENTU ONEAN HARRAPATU NAU"

tu du Reparazek. "Musika du ardatz, baina gauza asko ere baditu". Hamazazpi urte zituela Reparaz Vendetta taldean hasi zen eta 28 urterekin bukatu zuen proiektua. Estilo aldaketaren arrazoiak bat hori dela azaldu zuen musikari arbizuarrak: "Al- daketa nabaria da. Lehen entzu- ten nuen musika kontuan har- tuta, beste mundu bat da". Artis- ta batek bizi duen momentua bere lanean islatu behar duela uste du, "eta beste puntu batean nengoen. Hamazazpi urteko gazte batek transmititzen duena eta 28 batek esaten duena ezin da berdina izan". Zetak, beraz, mu- sika talde bat da, baina arte proiektu bat badela azaldu du Reparazek. "Ez dakit zer puntu- taraino garen gauza bat eta zer puntutaraino bestea".

"Musika elektronikoa ere asko aldatu da. Sakanan Lakuntzako

Matrakarekin edo Unibertsala- rekin lotzen dugu, 1990ko hamar- kadarekin eta drogekin. Egia da, musika elektronikoa eta drogak eskutik helduta joan dira". Es- tigmazio hori ikuste zuen Repa- razek, baina musika elektronikoa "asko aldatu" dela esan du. "Mu- sika elektronikoa mota asko egiten ari da". Zetak-ek, beraz, ez du "Valentzian egiten zen musika hori" ardatz, baizik eta Erresuma Batuan egiten den musikan ins- piratzen da Reparaz, Berlineko edo Frantziar Estatuko musika elektronikoa du oinarri. "Gehien bat, konponketei dagokienez, Erresuma Batua da erreferentzia, eta oso lotua dago pop-arekin".

Arbizu

Reparaz Arbizun jaioa da, arbi- zuarra da, euskalduna, euskaraz bizitzeko saiakera egiten du eta euskaraz egiten ditu abestiak. Bere "erroa eta jatorria" maite ditu eta ikus entzunezko proiektua ere ikusten da; "hautu garbia" egin zuen. "Ez zen sanoa izango. Onuraduna da nire sormenera- ko eta proiektuaren ibilbiderako. Sinesgarritasuna ematen dio". Estrategikoki eta marketinari dagokionez ere ez dela aukera txarra esan du.

Herriarekiko ez ezik, zaletuen gertutasuna Zetak proiektuaren beste bereizgarri bat da, Suare- zek nabarmendu zuenez. *Zeinen ederra izango den*, *Hitzeman* eta *Akelarretan* taldeak sortu dituen azken bideoklipak zaleek bida- litako irudiekin osatu dituzte. "Proiektua duela urte bat sortu genuen eta oso azkar doa. Etapa asko erre ditugu. Asko handitu da eta zalegoa bat-batean sortu- tako da. Lehenengo abestitik oso harrera ona izan dugu". Energia trukaketa bat gertatzen dela azaldu du: "Jasotzen dugun ene- gia hori guztia berriz energia bihurtzen da eta elkar elikatzen dugu". Hartu eman "oso aberas- garria" sortzen dela esan du. "Eta hori mantendu nahi dugu".

Zirkulua ixten

Reparazek "bakarka" sortzen zuen, eta du. "Gero taldearekin sinergia bat sortzen zen". Zetak-

"MUSIKA ELEKTRONIKOA ERE ASKO ALDATU DA; ERRESUMA BATUA DA GURE ERREFERENTZIA"

ekin "antzeko" zerbait gertatzen dela azaldu du, eta zenbait abestitan Gorka Pastorrekin egiten du lan. "Nire abestiak idazteko moduagatik bakarrik idazten ditut. Nire denborak hartuak ditut". Londresen Abes- tigintza masterra ikasi zuen, eta "asko lagundu zidan". Ez bakarrik abestiak sortzen, "dis- tantzia" hartzeko oso aberas- garria izan zela kontatu du. "Beti Euskal Herrian bizi izan naiz. Gehienez hiru hilabete pasatu izan ditut Euskal He- rritik kanpo eta gero itzultzen nintzen. Londresen denbora gehiago pasatu behar izan nuen, eta horrek perspektiba eman zidan". Erroa eta jatorria eta lana uztartzeko eta naturalta- sunez transmititzeko hausnar- ketarako aukera eman zion.

Irudia da Zetak-en beste be- reizgarri bat: "Garrantzia oso handia du. Oso potentzia da". Transmittitu nahi dutena trans- mititzeko sare sozialak eta irudia ezinbestekoak dira. "Apustu hori egin dugu eta pozik gaude. Mu- sika begietatik ere sar daiteke". Horregatik Zetak musika talde bat baino zerbait gehiago ere bada, eta ikuskizunetan "zirkulua ixten" dute. Proiektua sortu zutenetik "ekipo handia" izan dutela azaldu du.

Taularen gainean lau pertso- na egoten dira: Gorka Pastor piano jolea, Leire Colomo per- kusionista eta Iban Larreburu bateri jolea. Baina instrumen- tu hauek "bereziak" dira, eta jotzen direnean seinalea orde- nagailu batera bidaltzen dut eta ordenagailuak soinu bihur- tzen du. Horregatik, proiektuan Paskal Etxaperek parte hartzen du, soinu ingeniaria. Argiteria Isabel del Moralek diseinatzen du, managerra Artzi Iraurgi etxarriarra da eta Joseba Raz- kinek dena ongi egotea egiaz- tatzen du. Iratxe Reparaz arte zuzendaria ere Zetak-eko "nu- kleoaren" parte da.

Pandemia egoera dela eta, kon- zertuak emateko orduan neu- rriak bete behar dira. Hala ere, Reparaz kontzertuak eman ahal izateagatik pozik dago: "Kontzer- tu bat non jende guztia eserita dagoen eta maskara jantzita, tristura eman lezake, baina egun bizi dugun egoera kontutan har- tuta, non urte bat etxean pasa dugun, zuzenkorik eman gabe, nik garai bateko kontzertuen parean jarriko nuke.

"Pello Mari Otaño berpizten ari gara"

Patxi Bisquert Errotzen bizi den zinemagileak proiektu berri bat jarri du martxan: 'Ombuaren itzala' filma. Proiektua Altsasun, otsailaren 8an, eta Hiriberrin, hilaren 12an, aurkeztuko du

Eneida Carreño Mundiñano eta Erkuden Ruiz Barroso ERROTZ

1 Zer da Ombuaren itzala?

Film luze bat izango da. Pello Mari Otaño bertsolari eta poeta zizurkildarrari buruz hitz egingo du. Bere obraren bitartean Euskal Herriko eta Argentinako oso une garrantzitsuak aztertuko ditugu.

2 Zergatik izen hori?

Ombua Argentinako zuhaixka bat da. Izugarri handiak egiten dira. Nostalgia bideratzeko askotan erabiltzen zuen ombua Otañok; ombu horrek Errekaldoko bere baserrira eramaten zuen. Bi zuhaitz horiekin jokatu transfigurazio bat egiten du.

3 Zergatik Otañori buruzko film bat egin?

Zizurkilen jaio zen 1857an eta Argentinan 1910ean hil zen bertsolaria eta poeta. Zineman ez



Patxi Bisquert 'Ombuaren itzala' proiektuaren hitzaldi batean. XABIER VELEZ

da garai hori asko jorratu. Oso urte garrantzitsuak izan ziren ideia berriak sortzen hasi zirelako. Ekonomia eta dena hankaz gora zegoen eta gazteek erbeste-erako bidea hartu zuten. Ideia berriak behar ziren horri aurre egiteko. Txirritak horrelako hausnarketa bat egiten dio Pello Mari Otañori.

4 Proiektua auzolanean sortuko duzue. Ez dira garai onenak horrelako apustu bat egiteko.

Erraza ez da. Baina ez nuen beste aukerarik. Duela hamar bat urte hasi nintzen, eta ate asko jo ditut. Ni ez naiz proiektuak atzean uzten dituzten horietakoa. Proiektu honetan sinisten dut. Badakit gure gizartean eta gure kulturagintzan Otañoren itzala ere handia dela. Gauzak beste modu batera egiten baditugu, auzolan honetan egiten baditugu, aterako dugu. Momentuz hogei bat herritan egon gara, eta bi urte hauetan 150 herritara iritsiko gara. Gauza ona da izugarriko pedagogia egingo dugula. Otaño belaunaldi berriei eskaintzea nahi genuen. Nolabait Pedro Mari Otaño berpizten ari gara.

5 Horrelako beste proiekturen batean hain barruraino sartu zara?

Hain sakon, ez. Orain arte kontratatua izan naizen filmetan parte hartu dut. Galiziara bizitzera joan nintzen eta bertan produktora txikia sortu nuen. Beti egin ditut nire lanak, baina lan txikiak ziren. Gauza oso desberdina da. Ekoizleak herritarrak izango dira, sarrerak erosiz edo mezenazgoaren bitartez.

6 Mezenazgoaren bidez egingo duzu. Zer esan nahi du horrek?

Enpresek edo norbanakoez orri bat sinatu behar dute eta ez dute poltsikotik dirurik atera behar. Haiek bideratzen dute ekarpena desgrabazio fiskalaren bitartez. Orduan, haziendari ordaintzen diote eta haziendak hortik portzentaje bat bideratzen du gure proiekturako. Bide ona da. Jende askok egin dezake.

7 Sarrerak aurretik erosteko aukera ere badago.

Erabaki dugu 30.000 sarrera saltzea. 10 euroko prezioa dute. Pentsatzen dut helburu hori

beteko dugula. Ikastoletako eta eskoletako guraso elkarte bidez saltzen ari gara, liburutegietan, aretoetan... Izugarriko lana egiten ari gara. Lortuko dugu. Modu batera edo bestera parte hartzen dutenek errekonozimendua izango dute, eta auzolankide bakoitzak oparitoxa jasoko du.

8 Zein da aurrekontua?

Gure asmoa da sarrerekin 300.000 jasotzea eta mezenazgoaren bidez 450.000. Aurrekontu osoa 750.000 euro lirakeke. Hori izango da aurrekontua. Diru asko ematen du, baina film baterako txikia da. Gainera, Argentinan eta hemen grabatuko dugu. Garaiko istorio bat da eta horrek ere garestitu egiten du pixka bat.

9 Noiz hasiko zarete grabatzen? Zein da prozesua?

Prestatzen hasteko, lokalizazioak bilatzeko eta grabaketak egiteko ere udan Argentinara joan nahi dugu. Eta ahal dugun guztia grabatuta ekarri nahi dugu. Hori egiteko aurrekontuaren heren bat gutxienez beharko genuke. Horretarako bost edo sei hilabete falta dira, horregatik tarte honetan beharrezkoa zaigu ahal dugun sarrera gehien saltzea. Ondoren, irudi horiek auzolanaren bigarren txanpan erabili nahi ditugu. Egia esan, jendea oso ondo portatzen ari da.

10 Taldea osatuta dago? Castinga eginga dago?

Ez. Paper txikiak izango dira gehien bat. Hirurogei bat pertsona azalduko dira. Hasiko gara. Lehenengo castinga Argentinatik etorrira egingo genuke. Pertsonaia batzuk erabakita daude: Otañoren emaztea, laguntzailea, Txirrita... Baina asko falta dira. Ekipo teknikoarekin antzeko zerbait gertatzen da.

11 Helburua filma 2022ko Zinemaldian aurkezte da.

Lehenagorako egingo dela pentsatzen dugu. Komertzialki eta zinema aretoetan zabaldu aurretik, herriz herri joango gara eta auzolankideak izango dira ikusiko duten lehenengoak. Sarrerak erosi dituztenak edo mezenazgoan parte hartu dutenak.



DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA
619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu

MATRIKULAZIO KANPAINA 2021-2022

Behar duzun material guztia Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

